



KOOPERATIBA ARTEAN

HERRIAN BADUTE TRADIZIORIK; MAHAINGURUAN AZTERGAI

SOKAMUTURRA ▶ Aitor eta Andoni Unanuek adio sokari



autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako mintegiak

Urola Erdia
urtarrilak 17
AZKOITIA
Urola Lanbide Heziketa

Informatika nire enpresarako: Askea ala ordaindutakoa?

Ordutegia:
18:00-20:00

Aplikazio informatikoen merkatua oso zabala da, baina, **nire enpresarako softwarea** hautatzerakoan zein da kontuan izan behar dudan irizpidea? Zein **sistema eragile** hautatuko dut? Ze **nabigatzaile**?, bestelako ze **programa ofimatiko**? Galdera hauei eta suertatu daitezkeen beste hainbateri erantzuteko asmoz zenbait irizpide emango dizkizugu mintegi honetan, eta **zure enpresan** doan **erabiltzeko** tresnak dituen **CDa** ere emango dizugu.

Informatzeko eta izena emateko:
943 747 314
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Miramón
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



euskaraz ere,

NATURALITASUNEZ

Euskadiko Kutxan euskaraz arreta ematea ez da beste edozein zerbitzu.

Gure lan egiteko modua da.

Zurekin elkarlanean


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Burutik beherakoa ▶ Jose Luis Otamendi

Leku ederrak badira

Beti txunditu izan nau aginte eta diru gosez direnek daukaten arteak, auziak nahaspilatu eta beraien grina partikularrak denon arazo bihurtzeko.

Mundiala da. Derrepente kontratistak, lurren jabeak eta horien aholkulariak herriaren ongizatea eta garapenarekin zeharo kezkatuta ageri dira, Robin Hood edo Patakon –*daukanari kendu eta ez daukanari emon*– berrien pare. Badirudi azpeitiarrontzat kontu nagusietako orain, Loiola arteko ezkerraldea edo es-

kuinaldea etez zein lehenago bete dela. Sarrutuko gaitzute etzegile eta beraien botilero eta zaletuen arteko gerran, eta halako batean esango zaigu: *kito, bukatu da dena, bildu zeuen hildakoak eta segi etxera*. Eta gu, tonto aurpegiarekin, galtzaile zintzo, erretiratu egingo gara. *Aio, hurrengo iraultzara arte!*

Akordatzerako etez beteko dute Loiola artekoa, inori sekula galdetu gabe hori den aukera bakarra leku eder horientzako, zergatik aldatu zaien lur horiei kalifikazioa, lehenagoko

arauetan zerbitzu orokorretarako (kirola, osasuna, aisia...) gordeta egon direnean. Gazteei, txiroei etxe aukera emateagatik ote da? Lehendik ere etxe hutsik ez dagoelako? Susmoa daukat, hor beste zerbait egon daitekeela. Loiolako ezker eta eskuin aldearen promotorek, aspalditik udal gobernuekin izan duten konplizitateak hori pentsatzera narama. Gauza itsusi asko dela hor. Zakarrak agintzen duela Loiolako lohian. Eta garbi dago, hor da biltzanak ez dira ONGak.

uztarria ▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinakundea

Egoitza. Perez Arregi plaza 1 behea, eskubia (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia. 943 15 03 58

Posta elektronikoa. uztarrria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 69.a (2006ko urtarrila)

Urtea. VIII.a

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. hitzeko

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarrria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.450 ale

Inprimategia. Lizarra Grafikak

Azaleko argazkia. Ihintza Agirretxe

Charra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



Guk zerbitzua eta lana euskaraz

[U-iritzia]

08 Inkesta. Herritarrek sancebastianetan gustukoen zer duten jakin nahian ibili da Uztarrria oraingoan.

09 Iritzia. Maria Jesus Aranburuk hemendik aurrera bi hilabetez behin bere txokoa izango du 'Iritzia' atalean.

[U-mamia]

12 Sokamuturra. Aitor eta Andoni Unanue anaiek hamabost urte eta gero adio esan diote sokamutil izateari.

16 Klik. Nagore Aranburu aktorea *Zeru horiek* filmaren grabaketan.

26 Alkohola. Al-Anon alkoholikoen taldeko kide baten esperientzia.



[U-jakiteko]

28 Gaztainak. Gaztainak erretzeko Euskal Herrian dagoen danbolinik zaharrenetakoa Azpeitian dago.

[U-euskara]

40 Iñaki Segurola. *Orotariko Euskal Hiztegia* bukatu berri dute eta Iñaki Segurola filologoa lan taldeko kide izan da 21 urtean.

UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



Enbido ▶



Olatz Prat

Isiltasuna eta zu

Eseri lasai, arnasa hartu, zure inguruan zaratara ateratzen duen edozer gauza des-konektatu. Ezin baduzu, gelditu hemen, itxaron eta isiltasun osoan gelditutakoan segi irakurtzen.

Orain bai? Aurrera.

Itxi begiak segundo batzuez, poliki-poliki. Pentsatu ametsetako leku zoragarri horretan, itsasoaren jitoan olatuak hondar ertzean lehertzen, mendi gailurra... Zenbatu hamarrera arte eta entzun isiltasuna, entzun zeure arnasa, pausatua, lasai, isil (bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederati eta hamar). Dastatu lasaitasuna. Aahhh! Ez al da ederra?

Hau ez da yoga ariketa bat. Zure bizimodu bizkor eta zaratatsuan erlaxazio minutu batzuk izateko aukera eskaini nahi dizut. Behingoagatik, hartu tartetxo bat lasai irakurtzeko, ez esango dudanak bizia aldatuko dizulako, ezta gutxiagorik ere, daramazun erritmoaz kontura zaitezen nahi dut. Ibilaldi luze baten ondoren etxera bueltan, eseritakoan, sentituko zenukeena senti dezazun nahi dut, zeinen nekatua zauden konturatzea eta gelditzeak dakarren lasaitasunaz gozatzea.

▶ **ETA PENTSATU.** Ez zaizu iruditzen askotan gehiegi hitz egiten dugula? Zentzurik gabeko gauza asko esan eta hitzez esan ezin daitezkeenak, sentimenduak, amodioa bezalako gauzak, hala, hitzetan jartzen saiatzen gara eta hizkuntzak behin eta berriz oztupoak jartzen dizkigun arren berrito harri berberarekin egiten dugu estropuz. *Horror vacui*-a gainditu ezinik dabil gizakia eta ez gara konturatzen, gehienetan ez bada, sarri, isiltasunak argiago adierazten duela sentitzen duguna, pentsatzen duguna. Hitzak, azken finean, udazkeneko hostoak bezalakoak dira; asko daudenean fruitu gutxi dagoen seinale.

Duela ez asko lagun baten amonaren hiletara

joan behar izan nuen. Nire laguna ikustean ez zitzaidan hitzik ateratzen, "asko sentitzen dut" bai, baina ezer gehiago. Pertsona hark behar zuena ez zen ni berrikerian hastea; besarkada bat behar zuen, besarkada luze eta isil bat. Ez naiz bakarra izango, noski, baina konturatuko zinen, maiz, besarkada soil batek mila hitzek baino gehiago balio duela. Irudi batek gehiago balio duen bezala.

Sekretu bat kontatuko dizut. Bada leku bat izugarri gustatzen zaidana: Zumaiko itsaslabarra. Han goian, ertz-ertzean jarri eta itsasoari begira jartzen naiz, isilean. Egia da, han ez dago isiltasunik, baina badago nolabaiteko bakea, naturaren ahotsa soilik entzuten da, ura bortizki harriaren aurka, haizea abiatan aurpegiaren kontra eta, hala eta guztiz ere, bakea. Eguzkia itsasoan sartzen ikusi arte itxaron ohi dut, zerbait magikorik badago hango arratsa da, berezia da, zerua gorria eta itsasoa berunezkoa. Hori da nire lekuetako bat.

Baliteke norbaitek zorotzat hartzea; zuk, ordea, ondo baino hobeto dakizu zertaz ari naizen. Agian, zeuk ere badaukazu leku horietako bat eta hara joaten zara lasai egon nahi duzunean. Batzuetan nahikoa da leku horretan sentitzen duzun lasaitasuna eta bakea gogoratzea. Laguntzen du, ezta?

Hor nonbaiten irakurri dut benetako laguntasuna biren arteko isiltasuna tentsiorik gabekoa denean heltzen dela. Ezingo nuke hobeto esplikatu. Egia da. Sentsazio hori izan baduzu ohar-tuko zinen zeinen berezia den, besterik gabe, norbaiti eskua eman eta isiltasunean egotea. Bai momentu txarretan, baita onetan ere. Bion artean eraikitzen duzun lasaitasun horretaz gozatzen egotea.


Astegun soil baten gauzez esnatuz gero, leihora ateratzea ere gustatzen zait. Herri guztia lo dagoela sumatzea, gaua entzutea. Eta ni bezala dauden beste pertsonak imajinatzea, bakoitza geure gauzetan pentsatzen, inork molestetzen ez gaituela.

Hain naiz isiltasunaren aldekoa, orduak pasatuko nituzkeela hari buruz hitz egiten.

HILEKO ESALDIA ▶

Ez dago belar txarrik, toki txarrean jaiotako belarrak baizik

otsobeltz



zemat denborako
kontratue esan dek
daukekeela?

otsobeltz


Andoni Salegi

uztarria
AZPEITIKO KULTUR KOORDINAKUNDEA

KOMIKI BILDUMA

6 euro (bazkideek etxean jaso dute)

SALGAI Belaetxen, Eklipsen, Iratzarren, Martinezen eta Uztarriaren egoitzan (943150358)



● IKASTOLA GARA, IKASTOLEN ELKARTEAN

○ HERRI ONURAKO KOOPERATIBA,
GURASOENA ETA PARTE HARTZAILEA

● IKASLEA ARDATZ

○ EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA OINARRI

● ELEANITZA

○ PEDAGOGIA AURRERATUA, AITZINDARIA

● BAKARKAKO JARRAIPEN HURBILA

● GIZARTERATZE PROIEKTUAK

● ESKAINTZA INTEGRALA, ZABALA

ikasberri
AZPEITIKO IKASTOLA

Ikastolen Elkartea



LURGINTZA

KOOPERATIBA ELKARTEA

baserritarron zerbitzura!



Jose Artetxe 3 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 14 31 - Faxa: 943 81 61 47

e-mail: gestioa@lurgintza.net

Lan MOBEL
MOBILIARIO

BIZI KALITATEA



JOERAK EZARTZEN DITUZTEN DISEINUAK
DENOK GOZATZEKOAK





Koldo Aldalur

Txitxarak dantzan

Nahiz eta berezko zentzua erabat galdu duten gabon festak ia gainditu ditugun, oraindik atzealde inguruan dantzan susmatzen ditut hipokresiak berekin duen ezintasunak sortu ohi dizkidan *txitxarak*.

Kontsumismoaren eredu bihurtu diren festen atarian ginela irakurri nuen *guipuzcoanismoa* eta, bide batez, espainolismoa gehien bultzatzen ari den egunkarian: herrialde honetako biztanle bakoitzak, batez beste, eta adinari erreparorik egin gabe, 60 euro gastatzen omen ditu Gabonetako loterian. Harro, oso harro ote zioen iruditu zitzaidan: gipuzkoarrek badute diru hori horretan xahutzeko; beraz, ederki bizi gara. Edo horrelako zer-bait.

Baina politikan bezala gai horietan ere eremua zenbat eta zabalago hartu ulertezinagoa egiten denez, etxe ondora ekartzea izango da egokiena zenbakien itsasoan ito ez gaitezen. Ea, Azpeitian 13.500 lagun bizi gara gutxi gorabehera. Ondorioz, abenduaren 22ko loterian 810.000 euro, ia 140 milioi pezeta bota ditugu. Lotsaren aztarnarik gabe. Harro.

▶ **BATU ETA BATU.** Segituko al dugu zenbakiekin? Espainiako administrazioak aitortu duenez, saritan % 70 banatzen dute. %30 beraientzat gordetzen dutela, alegia. 810.000 eurotik 243.000 euro estatuarentzat. 42.000.000 pezeta. "Mila esker bihotz-bihotzez ekarpen txoa egin duzuen guztiori" esatea bakarrik falta zaie.

Jarraituz gero, erabat frijituko naizenez, zenbakiak utzi eta jo dezadan espekulazioetara. Beno, zer egin dezake auzoko hiriburuko gobernuak gure herriak hain bihotz onez eman dion diruarekin? Perkala ezagututa ez dago burmuinari estutu handia eman beharrik. Ezkutuko dirua tentagarria denik ez didazue ukatuko.

▶ **AUKERAK.** 1. Audientzia Nazionaleko epaileak, nerabe aroko andregaiaren bularrak bailiren,

igurtzi eta igurtzi euroen laztanak erabat goza ditzan arte. Fiskalak ere aginaldorik gabe ez utzi, baidazpada, makrosumarioetatik eta epaiketa arruntetatik inor zutik atera ez dadin. Norbaitek deklarazio garrantzitsuren bat egin nahi badu, hari ere eskupeko zabalda.

2. Sansebastianetan txorimalo batzuk bidali hain erakarpen ederra egin duen herrira, herritarrek norekin, non, nola eta zertan dabilzan azter dezaten. Eta argazki eta guztiz bada, soldata bikoiztu. Diruagatik ez dadila izan. Ez behintzat orain, poltsa betea dugunean.

3. Diru laguntza berezi bat ezarri komunikabide zintzoen zuzendariei, irratsaio, tertulia eta orri bakoitzean azpeitiarrek garbi izan dezaten, besteak beste heuren laguntzari esker, herri honen eskubideak ez daudela zapalduta eta konstituzioaren altzoan baino epelago ez direla inon izango.

4. Nahiz eta munduan dirurik ez den egiten duten lan eskerga ordaintzeko, eskupekorik gabe gelditu behar ez duten besteak, gure moralala eta duintasunaz arduratzen den hainbat foro, elkarte eta pertsona zehatz. Gaueko telepredikadore sasi-liberalak barne.

5. "...eta horrela bizi ohi gera sortuz ta sortuz gure aukera, atsedetik hartu gabe...". Barregaririk ez. Eta hau gabonetako zozketa ezagunari dago-kionez. Baina... eta lotoa? Eta primitiba? Eta itsue-na? Eta euro ez dakit zer?

6. Sermoi moduko hau idazten hasi naizenez, oharatu naiz oraingoan ere berandu gabiltzala okerra zuzentzeko, garaia joan dela, eta zertxobait bueltan etorri zaionaren poz ulertezinak *txitxarak* dantzan jartzen dizkidan une honetan uste dut zerbait gehiago egin daitekeela arlo honetan ere. Ez dakit, noizean behin elkartu erasoari nola kontra egin erabakitzeko edo antzeko zerbait. Edo ur sakonetan sartu, propio, pentsatuz zer egin daitekeen Azpeitia bezalako herri batean 42.000.000 pezeta gehiago izango bagenitu. Solidaritatean murgiltzea saririk gustagarriarena dela sinesteraino. Zaldi herrenaren entrenatzailearen garaipen ametsa. Eta esnatzen ez garen bitartean bapo ibiliko dira batzuk gure hipokresiarri esker.

7. Eta amesgaizto honetan Silviok zioen legez, sugaekirentsiko gaitu.

HILEKO ESALDIA ▶

Txitxarak hazi egin dira, itxuraz, jaten eman diegulako

agirre oparidenda



Erdi kale 1
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 13 25

azkue jantzi denda



Erdi kale 7
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 15 06

ederti altzariak



Enparan kalea 10
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 16 74

furundarena oinetakoak



Erdi kale 9
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 11 43

gemma kinkilidenda



Santiago kalea 10
20730 Azpeitia
Tel: 943 15 18 65

gotain lurrindegia



Erdi kale 3
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 43 58

hautxoa haurren moda



Perez Arregi 9
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 69 79

jone eta maikar estetika zentrua



Julian Elorza 5
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 38 98

iturralde iturgintza



Eliz kale 12
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 12 12

jostaldi kirolak



Erdi kale 15
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 46 23

Trauskil ▶ Jon Berdejo



Hau ▶



Jokin Uranga

Kokoteraino gaude

Lelo horren pean hainbat kartel, pankarta eta abarrekin egin dugu topo azkenaldian. Besterik ez dioenez, bakoitzak aterazituen ondorioak. Zertaz egon gintezke kokoteraino? Sexu erasoez? Langabeziaz? Poliziaz? Bururatzen zaizkidanak dira, ziur gehiago etorriko zaizkizuela!

Baina 'moskeo' kanpainaren helburu bakarra azpeitiarrok azkenaldian pairatu dugun errepresioa salatu eta gainditzea da. Askok gara, gehiegi (pertsona bakarra ere gehiegi litzateke) urte hauetan kartzelara joateko mehatxupean bizi garenek. Bakarren bat ere bada zuloan bere bizitzako urterik onenak pasatu dituenak.

Argazki bat ateratzen izan ginen aurrekoan, eta 21 izan ginen bildutakoak, bakoitza bere historiarekin. *Marroi* handiago edo txikiagoarekin baina denok gure sinesmen eta pentsaerekin koherente izatearren gureak ez diren epaitegietan epaituak edo epaituak izateko zain gaudenak ginen. Eta nork eramaten gaitu epaitegietara?

Denetik dago: batzuk Espainiako Poliziak, beste batzuk EAJk eta besteak Udaltzaingoak. Harrituta azken horiekin? Ba, pentsa zenbait udaltzainek (ez denek) ikastetxe aurrean txistua jo eta isunak jarri baino gehiago egiten dutela. Gure *supermaderoek*, txapelgorriekin kolaboratu eta gazteak Madrilgo Auzitegi Nazionalera bidean jartzeko batere erreparorik ez baitute. Sinestezina badirudi ere ez da denbora asko udaltzain baten salaketaren erruz hara joan ginela bi gazteri laguntzera.

Beste *marroiak*, kartelak jarri, manifestara joan eta horrelakoengatik dira. Udaleko kargu-hartzean izandako balizko istiluengatik ere gazte bati bost eta beste bati hiru urteko espetxe zigorrak eskatzen dizkiete.

Onartezina denez, salaketa ekintzak antolatuko dira, bakoitzak ikusiko du non eta zer eman. Erakuts diezaiegun kokoteraino gaudela.

Galdetuz ▶

Sansebastian jaietan zer gustatzen zaizu gehien?

JORITZ GALARRAGA ▶

azpeitiarra



"Sansebastianak asko gustatzen zaizkit niri. Sokamuturra gustatzen zait

gehien, baina oraindik ez naiz zezenaren aurrean ibiltzen; ni begira egoten naiz".

GORKA ETXEBERRIA ▶

azpeitiarra



"Asko gustatzen zaizkit sansebastianak. Gehien gustatzen zaidana

sokamuturra da. Danborra jotzea ere gustukoa dut, baina gutxiago".

AITZOL GALARRAGA ▶

azpeitiarra



"Sansebastianetan gehien gustatzen zaidana zezenean ibiltzea da. Niri danborra jotzea

baino gehiago gustatzen zait hori, baina badaezpada zezenarengandik urrun ibiltzen naiz".

URKO ARRIETA ▶

azpeitiarra



"Asko gustatzen zaizkit sansebastianak niri. Danborra

jotzea-eta gustukoa dut, baina zezena gustukoagoa".

Apunteak ▶

GORA.

Aurten Izarraitz pilotalekuan egingo dira danborradako entseguak. Azoka plaza baino leku handiagoa eta erosoagoa da. Aurrerapausoa da.

Ea helduen danborradan bertan ere aurrerapausoak ematen diren aurten; ari dira neurriak jartzen.

GORA.

Imanol Zinkunegik bere aurreneko filma zuzendu du: *Pailazokeriak*. Jaiotzez azpeitiarra da Zinkunegi, nahiz eta aspalditik Donostian bizi. Azpeitian abenduaren 26an bota zuten, Soreasun.



lazko sokamuturreko une bat, Errealean. NEREA URANGA

GALDERA.

San Sebastian eguna ostirala da aurten. Iganderako (22rako) sokamutilek Udalarri zezena jartzeko eskatu diote, beraiek prest daudela lan egiteko. Jarriko du Udalak?

Uztarria.com ▶

Inkesta.

Neguan eguraldi txarra etortzen da. Gorpilenzako katerik bai autoan?

- ▶ Bai. %25.
- ▶ Ez. %75.

Orain dagoena.

- ▶ **Inkesta.** Gabonetan noiz egiten dituzu opariak?
- ▶ **Eztabaida.** Lagundu Gabonetako erregaloea pentsatzen.

Zer dio? ▶ Aritz Arzallus (Gaztetxeko gazte problematika taldeko kidea)

Gaztetxea gazte arazoak landuz

Gaztetxeak urte erdia darama martxan eta beti garbi izan dugu helburua ez dela Gaztetxea, gazteok lortu nahi ditugun helburuak lortzeko tresna bat baizik. Gazte asanblada baten helburua, gazte problematika landu, lortu nahi denaren alde borroka egin eta sistemari alternatibak ezartzea da.

Hori horrela izanik, Azpeitiko gazteek dituzten arazoengatik diagnosi bat egin beharra ikusi genuen, eta diagnosi horretatik abiatuta arazoengatik lan egiteko asmoa dugu.

Diagnosi hori egiteko lan-talde bat osatu da eta lan-talde horrek otsailaren 18an eztabaida goiza antolatu du. Ondoren, egunean osoan, beste ekintza ezberdin batzuk ere izango dira.

Diagnosi hori egiteko abiapuntutzat gai ezberdinak aukeratu ditugu (etxebizitza, lan baldintzak, drogak eta aisialdia, emakumearen egoera, kultura,

musika, komunikazioa, errepresioa, proiektu txikitzaileak, euskara...) eta gai horietan murgilduta dauden eragileekin bildu gara, eta eragile horiei ere diagnosian parte hartzeko konpromisoa eskatzen diegu. Ondoren, herriko ahal den gazte koadrila gehienekin bilduko gara diagnosi honetan parte har dezaten, eta otsailaren 18an parte hartzeko deialdia ere egingo diegu.

Egun horren aurretik gai horiez hausnartzen hasitako gai ezberdinen inguruko hitzaldi zikloa ere antolatu dugu. Hitzaldi horiek urtarrean hasiko dira eta bost astetan izango dira.

Baina gazte problematika lantzeaz gain, beste lan taldeek ere euren lanean jarraitzen dute; aisialdioko ekintza eta ikastaroak antolatzen, azpiegiturakoak gaztetxea egituratzen...; eta herriko gazte guztiei deia luzatzen diegu bertan parte har dezaten.

Urte berria, asmo zaharrak

Lehenik, txoko honetatik zuekin egoteko aukera eman didatenei eskerrak eman nahi dizkiet, eta zuri irakurle, errespetu handiz, eskertu nire burutazioak irakurtzeko beta hartzen dizulako.

Gabonak pasatu ditugu, berriro ere eguneroko errealitatean sartzerakoan, panorama ilunean aurkitzen gara: negua, egun motzak, hotza, euria, izotza... eta egutegia zenbaki beltzez bete. Giro honek ematen digun 'makaltasunean' sarritan, egutegiari begiratzen diogu eta festei aurre egiteko prestatzen hasten gara. Sansebastianak, inauteriak edo elurretako irteerak, negua lehenago pasatuko ote zaigun pentsatuz.

Bitartean errealitateak bere erritmoa darama eta egunen joan-etorriak beste zenbait berri ekartzen dizkigu. Egunerokotasunean murgiltzen gara eta Urte Zaharrak bere azken hilabeteen, hainbat egun bereziren bitartez, gordintasunez begien aurrean ipini zizkigun zenbait egoera, akaso ahazten ditugu.

Hies eguna, emakumeen aurkako indarkeria salatzea... eta abar luze bat. Horietatik guztietatik nik Euskararen Eguna berriro eskuratu nahi dut eta egun hartan bakoitzak izango zuen asmo berritua jaso. Zorionez, herri euskaldun batean bizi gara, gure hizkuntza asko erabiltzen dugu; hala ere, badira oraindik zenbait hutsune: zenbat irakurtzen edo idazten dugu euskaraz? Zenbat aldiz hitz egiten dugu gaztekeraz aurrean dugunak ez dakiela pentsatuz? Zenbat aldiz betetzen ditugu erakunde desberdinetako paperak gaztekeraz hobeto beteko ditugulakoan? Zenbat aldiz ikusten ditugu helduak haurrei euskaraz hitz egiten, beraiek euren lagunekin gaztekeraz hitz egiten duten bitartean?

Har ditzagun asmo zaharrak eta urte berrian txertatu. Datorren Euskararen Egunean nola ote dugu denona den euskararen altxorra?

◀ Eta beste



Maria Jesus Aranburu

Azpeitia hiri zintzo eta leiala ▶ Andoni Salegi



Bat hirutara ▶

▶ Gabonetan 'pozak' eta 'zorionak' gailendu behar dutela irakatsi digute ume-umetatik, baina bestelako sentsazio ilunik ere nozitzera iritsiko denik ez da faltako aurtan.



Xabier Aranburu Mikel Aizbitarte Haizkurgi Uzin

Chinatown

Mikel. *Alaken, Alaken, a la pikula tun bai-len...* Gaur, bi aste luzeko oporrei hasiera eman zieat eta pozarren nagok aurtengo gabon zorionsuez gozatzeko prest.

Haizkurgi. Erotu egin al haiz ala? Zer dute ba gabonek zorioneko?

Mikel. Gabonetan denok gaudek alai, familia giroan, aspaldiko istorio zaharrak entzunez eta guztiok elkarturik gabon kanta politak abestuz.

Haizkurgi. Hik deskribatu berri dituan gabon idilikoak, Disneyko filmetan soilik gertatzen dituk. Konturatuko haizen bezala, gabonetan kontatu ohi diren istorio guztiak buruz zekizkiat eta horregatik, erotu baino lehenago, haiengandik ahal den bizkorren ihes egiten saiatzen nauk, kalean dagoen parrandaren egarriz.

Mikel. Aitortzen diat familia guztiak ez direla igualak eta, beraz, alaitasuna eta poza ez dela berdin banatzen etxe guztietan, baina ez didazue ukatuko hunkigarria ez denik Errege Egunean, goizean jaiki eta bezperan garbitutako zapaten ondoan opari mordoak ikustea! Egun hori noiz iritsiko nagok. Nik, badaezpada ere, nire errege kuttunenari –Baltasari alegia– igorri zioat eskari-

gutuna. Zuek nori bidali diozue?

Xabier. Erregeek egin dezatela beraien lana, baina euren erresuman. Gure herrian opariak eta alaitasuna banatzen dituen bakarra gure Olentzero maitea duk. Euskal gabonak beste herrialdeetako gabonengandik bereizten dituen ikurra, Olentzero bere asto gainean mendian behera ikustea duk. Gainera, oso kuriosoa iruditzen zaidak nola ume askok, 'errege beltza' duten kuttunen, kontutan izanda urte batzuk geroago zenbaitek beltzik ikusi nahi ez dutela inguruan. Umetan Baltasarrek opari eskasak ekartzen zizkielako izango duk, akaso!

Haizkurgi. Zer Olentzero, zer Baltasar eta zer erregeondo! Gabonen inguruko tradizioa pikutara zoak! Izan ere, aurtengo opariak ez dituk etorriko ez mendi alde tik, ezta urruneko basamorturen batetik ere. Ekialde urrunean baduk herrialde handi bat, eta, heren-

sugeak ahotik sua botatzen duen bezala, 'opari' mordoak iristen duk handik gure etxeetaraino.

Mikel. Zer esan nahi duk horrekin bihozgabe horrek?

Haizkurgi. Ez ezak inozo aurpegi hori jarri! Nola esplikatuko hukek bestela, soinean darman jaka dotore horren jatorria? Teknologi berrien abantailak aprobetxatuz, Internet bidez, edozein merkatura iristeko parada diagu gaur egun. Horrela, preziorik onenean eta erosotasun osoarekin edozein produktu erostearaino iristen gaituk. Galde iezaiek Azpeitiko dendari txikiei bestela, gabon inguruak, urteko egunik oparoenak izanda salmentarako, zenbat saltea espero duten aurtengo honetan.

Izan ere, herri erdiak egin ziek dagoeneko bere esakaria 'errege txinoei', gutun elektronikoa baliabidetzat hartuta. Zein da gure herriko dendari eta saltzaile txikien etorkizuna aurrerantzean, Txina bezalako merkatal zentro erraldoi baten aurrean?

Xabier. Garbi zagok gabon ospakizunen inguruko tradizioek itzulipurdi galanta jasan dutela. Familia giroan ospatzen zuan festa erlijioso bat izatetik, kontsumo eta gehiegikeriaren erresuman bihurtu duk. Bate-tik, umeak eta helduak, opari eta jakirik onenekin ere ezin konformatuz, aldamenekoarekiko bekaizkeriz jota. Gazteak, aldiz, festa eta parranda egarriz, afari legea egin ahala kale-ra azkar, urtea alkoholetan blai ekiteko prest. Hori gutxi izango ez balitz, zenbait gazte *majadero* gainera, *Pomez Harria* buru dutela, kalean edozein txikizio egiteko prest, petardo arrisku-tsuak lehertzetik hasita, gabonetako argi koloretsuak puskatzeraino.

Mikel. Gabonetan sartu berri gaituk eta ez diat inorekin hase-rretzeko asmorik. Norberak jakingo dik urte osoan zehar egin eta egin gabe utzi duena. Horregatik zuei guztioi eskanita kanta zoragarri hau: *Din Dan Don, Din Dan Don Eguberri...*





utzi diote SOKARI

Aitor eta Andoni Unanuek hamabost urte pasatu dituzte zezenean sokamutil, eta orain utzi egin dute; besteak beste, gazteagoei lekua egiteko

► Testuak: Miren Garate ► Argazkiak: Aitor eta Andoni Unanuek utzita, eta lhintza Agirretxe

Urteak joan eta urteak etorri, Azpeitian osasuntsu segitzen du sokamuturrak. Ederki dakite hori Aitor eta Andoni Unanue anaiek, sokamuturrarekin harreman estua izan dutelako, hamabost urte inguruan aritu direlako sokamutil. Orain, baina, utzi egin dute.

“Betidanik izan gara zezenzaleak. Aita ere hala zen, eta, batez ere, sokamuturra txiki-txikitatik bizi izan dugu”, diote bi anaiek. “Orduan sokamutil ibiltzen zenezake batek jendea behar zutela aipatu zigun, eta halaxe hasi ginen”. Orain hamabost urte inguru izan zen hori. Lehendabizi bietan gazteena, Aitor, hasi zen eta handik urtebetera Andoni anaia. Harrezkeroztik, urtero atera dira. Hastapen haiei buruz galdetuta, sokamuturreko lehen urtean “beldurtuta” egon zela gogoratzen du Aitorrek: “Orduan sokamutil ateratzen zirenak beste belaunaldi batekoak ziren, ni baino askoz ere zaharragoak, eta ni nintzen gazteena. Hori dela eta, errespetu handiarekin hasi nintzen. Gero anaia eta gure adineko beste lagun batzuk hasi ziren eta ordutik hobeto”. “Sokamuturrean jendea eten-

gabe aldatzen da. Hasi ginenean zegoen taldetik inork ez du jarraitzen. Gu baino hogeitaz zaharragoekin aritzen ginen lehen; orain hamar urte gazteagokoak ere badaude”, dio Andonik.

Jendeaz gain, beste hamaika gauza ere aldatu dira sokamuturrean. Sokamutilen segurtasunari dagokionez, esaterako, aurrera-pausoak eman dira. “Lehen ez genuen segurorik ere izaten eta zezenarekin min hartu eta lanerako gai ez izanez gero, arazoak izaten genituen”. Era berean, sokamuturraren gogortasuna ere handitu egin dela uste dute. “Lehen bi zezenekin pasatzen zen arratsalde guztia; orain, aldiz, ordu erdiro aldatzen dute. Hala, zezena fresko-fresko ateratzen da, indar handiagoarekin. Bestalde, zezenak ere gero eta handiagoak izaten dira. Horregatik du Azpeitiko sokamuturrak hainbesteko gogor ospea”.

► **PRESTAKUNTZA.** Sokamuturraren gogortasun hori dela medio, sokamutila izateko gutxieneko prestakuntza fisikoa izatea ezinbestekoa da. Kanean gora eta behera lasterka ibili, zezenari tira

egin...; indar eta arintasunik ezean, gaizki ibili behar izaten du sokamutilak. “Guk, batez ere, lasterka egiten dugu sokamuturrerako prestatzeko; gimnasia ere joaten gara, baina gutxiago”. Hala ere, ez da gaur eguneko kontua prestateta egitea. “Sokamutilak beti prestatu izan dira; orain, akaso, gehiago”.

Era berean, lan lotua da sokamutil ateratzea, gaueko parranda asko mugatzen baitu. “Guk bada, kigu hurrengo egunean zer egin behar izaten dugun eta geure burua kontrolatu behar izaten dugu: gutxiago edan, lehenago erretiratu... Hala ere, geure borrodatez egiten dugu, ez gaitu inork behartzen horretara”, dio Aitorrek. Badu horren inguruko anekdotarik ere: “Behin, astearte karnabal goizean ez zitzaidanez zezenean irtetea tokatzen, parrandara irten nuen. Gero batek ezin zuela-eta niri tokatu zitzaidan goizean zezenera joatea. Oraindik gogoan dut Inpernu soziedadean gosalduta eta korrika nola joan nintzen etxera aldatzera. Bidean etxafuegoak jo zuen eta ni han joan nintzen lasterka oraindik aurpegiko margoak ere kendu



Aitor eta Andoni Unanue, pilotalekuan.



“Jendea badago sokamutil ateratzeko prest, eta badakigu guk utzi arren, ez dela arazorik izango”

AITOR UNANUE ▶
sokamutil ohia

“Behin, gauzak prestatzen ari ginela, azkoitiar bat azaldu zen sokamutil ez jantzita; sokan irten nahi zuen”

ANDONI UNANUE ▶
sokamutil ohia

gabe”. Ez omen zen egun ederra izan hura.

Baina zergatik dute hainbeste-ko arrakasta zezenek Azpeitian? Horren arrazoia, hein handi batean bederen, inauteriak mantendu izana dela uste dute Unanuetarrek. “Inauteriak debekatzen hasi zirenean, jai horiekin zerikusia zuen oro baztertu nahi izan zuten. Eta horixe bera gertatu zen sokamuturrarekin ere”, dio Andonik. Nolanahi ere, Azpeitian ere debekatu izan da sokamuturra; hala, frankismo garaian, 1968 eta 1969an galarazita egon zen. Orain dela hamabost bat urte, berriz, *Zezenaren gaitza* izeneko gaixotasuna izan zen ez egotearen arrazoia. “Festa negargarriak izan ziren, bazirudien ez ginela festa ospatzen ari. Jendeak hura ez zela Azpeitia esaten zuen”.

Aitzitik, sokamuturra ohi baino gehiagotan egotea ere gertatu da. “Sansebastianak asteburuan tokatzen direnean, egun batean luzatzeko ahalegina egiten dugu; esaterako, aurten. Ea Udalak kasu egiten digun”. Hala ere, gehienez egun bat gehiagoz izaten da, eta ez garai batean bezala, sansebastianetatik karnabalak bitarteko igande guztietan. “Orduan ganaduak kanpotik ekartzten ziren eta Azpeitian ukuilu bat jartzen zen. Eta, zezenak herrian ▶▶



Biak, astearte goiz batez.



Aitor, plazan, orain dela hamabost bat urteko argazkian.



Andoni, lagunekin, zezenaren zain.

▶ bertan zeudela aprobeztatuz, atera egiten zituzten igandero”.

▶ **KOSTU BAXUA.** Sokamuturraren kostu ekonomikoa oso baxua da. “Sokamuturra, eskain daitekeen ikuskizunik merke eta arrakastatsuen da”, uste dute. “Kaleak prestatuta egoten dira zezenarentzako eta zezenak ekartzea ere merkea da; sokamutilok, berriz, borondatez egiten dugu lan, ez dugu dirurik kobratzen; kosturik handiena gure seguroak izaten du”. “Maiz esaten da Azpeitian ez dela ezer egoten neguko asteburuetan. Sokamuturra egun bat gehiagoz jarri duten bakoitzean, arrakasta handia izan du, kaleak leporaino bete direlako”, uste du Andonik.

Sokamuturrak herriaren aldatetara moldatu behar izan du, txoko batean ez bada bestean

beti izaten direlako lanak, eta hori dela-eta urtero egin behar izaten diote eskariren bat Udalari. Hala ere, sokamuturra bere horretan mantentzen ahalegintzen dira, nahiz eta horrek Udalarekin hainbat tirabira izatea ekarri. “Orain urte gutxi, miseriak aldera zezenik ez eramateko eskatu zigiten, eraberritzen ari zirelako. Baina toki horretara jende asko joaten da eta guk eraman egin genuen. Udalak sokamuturrari babes handiagoa ematea gustatuko litzaiguke. Guk geure borondate guztia jartzen dugu baina maiz oztupoak jartzen dizkigute”, kexatzen dira sokamutilak. “Gainera, guk egiten ditugun eskaera guztiak herriaren onerako izaten dira, bai segurtasun neurriak hartzeko esaten dugunean eta baita egun gehiagotan jartzeko eskatzen dugunean ere; ez dugu uler-

tzen zergatik jartzen dizkiguten hainbeste traba. Batzuetan sokamuturrak duen aurkari nagusia ez da jende falta izan, Udala baizik”.

▶ **PASADIZOAK.** Urte askoan gauza asko ikusi eta bizi ahal izan dituzte bi anaiek. “Behin Etxezuri aurrean geunden zezena atera aurretik gauzak prestatzen eta han etorri zitzaigun azkoitiar bat sokamutiler jantzita sokan irten behar zuela esanez. Hark zezenean irten nahi zuela esaten zigiten. Guk azaldu genion sokamutil izatea ez zela horrela izaten, ez zuela nahi zuenak nahi zuenean irteten, eta halakoren batean ulertu zuen. Baina ia-ia bost beharrean sei irten ginen!”, gogoratzen du Andonik.

Aitorrek ere ez du haztuko kantoi batean gertatutakoa: “Behin kantoi bateko leiho batera igota

nengoen zezena ikusten. Zezena etorri zenean behean zegoen gizona harrapatu zuen. Gizon hark ume bat zuen eskuetan eta guri bota zigiten. Eta guk, airean harrapatu behar izan genuen”, akordatzten da.

laz atera ziren azkenekoz Aitor eta Andoni sokamutil. “Orain beste ardura eta konpromiso batzuk ditugu eta horregatik erabaki dugu uztea”, dio Andonik. “Gainera, jendea badago sokamutil ateratzeko prest, eta badakigu guk utzi arren, ez dela arazorik izango jendea aurkitzeko, eta horrek ere lagundu digu erabakia hartzen”, uste du Aitorrek. Hala ere, ez dute sokamuturra alde batera uzteko inongo asmorik. “Hemendik aurrera ere hor ibiliko gara zezenaren inguruan; ea seme-alabei ere zaletasuna pizten zaien...” ◀



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
 Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net



Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu

Tel. 943 81 51 87
Loiolabide. 25

Amenabar

D E N D A

gortinak, ohazalak,
edreoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK”

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira




81 53 35

AZPEITIKO

6 harategi haueten bakarrik



EUSKAL OKELA



**"Bertan jaio eta hazitako ganadua.
KALITATEKO okela nahi baduzu,
GUREAN aurkituko duzu!"**

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Artxe, 21 Tel.: 943 151382
AZPEITIA



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA

Harategia Odriozola

Harategi
Especializatua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



EDUARDO BERSATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TFONOA: 943 811671

aranbururen

ZERUA

Nagore Aranburu aktore azpeitiarrak 'Zeru horiek' filma garbatu zuen udan; hura da aktore nagusia. Hona hemen filmako bertako irudi batzuk, Igeldo produktorak utzita



▲ IKASTEN ETA ERREPASATZEN.

Nagore Aranburu aktore azpeitiarra Bernardo Atxagaren 'Zeru Horiek' liburuan oinarritutako eta Aitzpea Goenagak zuzendutako filmeko aktore nagusia da.



FILMAKETA.


Nagore, Irene ETako kidearen paperean sartuko da, eta kartzelatik irten, Euskal Herrira bueltatu eta berriro eguneroko bizitzan integratu nahiko du.

FILMATU AURRETIK.

Filmatzen hasi aurretik azken ukituak emateko momentua izaten da. Argazkian, Aranburu txukuntzen duten bitartean, Iban Garate aktore azkoitiarra begira.


AUTOBUSA.

Grabaketa, besteak beste, Bartzelonan izan da. Argazkian, aktoreak autobusean. Filman Irene autobusean bueltatzen da Euskal Herrira.



ADI-ADI.

Zuzendariak zerbait esaten dien bitartean, adi-adi entzun eta zuzen-zuzen begiratzen diote Aitzpea Goenagari aktoreek.



TARTEAN.

Batzuk prestatzen ari direla, besteek taldekoekin berriketan aritzeko beta izaten dute; bai filmaz hitz egiteko, baita bizitzaren gorabeheraz hitz egiteko ere. Argazkian, Aranburu bera taldekoekin hitz egiten.

GERTUKOAK.

Iban Garate aurkezle eta aktore azkoitiarrak ere parte hartu du filmaren grabaketan. Argazkian, Nagore Aranburu eta biak filmaketako egunetan.

Izenari ukitu bat

Azaroaren 28an proposamen hau egin zuen Iñaki Beobidek uztarrria.com/euskara atalean: "Ez al litzateke, agian, hobea 'Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinadora' izena izan beharrean, 'Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinakundea' ? Arrazoiak: 'Koordinadora' terminoa ez da Hiztegi Batuan azaltzen, ezta bestelako hiztegietan ere. 'Koordinakundea', aldiz, askotan azaltzen da (Hiztegi Batua, Elhuyar, Hiztegi Handia...) Gero eta erakunde gehiago hartzen ari dira 'koordinakunde' terminoa". Uztarrriaren zuzendaritzak aztertu du eta hemendik aurrera, Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinakundea izango da.

bazkideen batzarrak ofizialki onartu du KAFE ANTZOKIA SORTZEKO PROPOSAMENA

A benduaren 17an izan zen Uztarrria Kultur Ko-ordinakundeko bazkideen urteko batzarra. Honatx burpena (joan ez ziren bazkideentzat txostena egoitza dago, eskura).

2005 ▶

Komunikazioa. 2004ko ildotik segitu zen: *Urola Kostako Hitza*-n, herri aldizkarian, bi liburu atera, *Literatuzta*-n... Balantze ona egin zen. Uztarrria.com-en hobekuntzak egin ziren eta Argia Saria irabazi.

Euskara. Uztarrriaren eta Udalaren hitzarmena eten egin zen urtarrilean (2004ko batzarrean hitz egin zen horretaz). Harrezkero, Uztarrriak segitu du normalizazio lanekin (Bai Euskarari Ziurtagiria...). Hitzaldiak ere antolatu zituen 2005ean...

Kultura. Soreasuko kultur gunea osatzeko Uztarrriako zuzendaritzak eta taldeek egindako proposamena ofizialki ontratatu zuten baz-



Abenduaren 17an egin zen batzarreko irudia. IHHINTZA AGIRRETXE

kideen batzarrak (Soreasun Kafe Antzokia sortzea). Bazkideak lehendik informatuta zeuden, berripaper baten bidez. Bestetik, IV. Kulturaldia egin zen.

Aurrekontua. 113.979, 65ko gastuak izan ditu elkartek. Oraindik ez du itxi urtekoa, eta enpazean bukatzea espero du (2005ekoa ordaintzeko falta diren bazkideek ordainduz gero).

Bazkideak. 2004 bukarran iritsi zen Uztarrria 1.000 bazkide izatera. 2005ean

kopuruari heltzeaz gain, igo egin du: 1.042.

Besterik. Bi porra (Tourrekoa eta bertso finalekoa), txostna saninazioetan...

Hitzeko. Hitzeko Euskara eta Komunikazio Zerbitzua S.L. enpresaren (Uztarrriak sortu zuen 2004an) urteko balantzea egin zen. Ona.

2006 ▶

Komunikazioa. Ildo bertetik segitu oraingoan, eta Urola Kostako euskarazko komunikabideen sareaz

hausnarketa burutu (aztertzen ari da Uztarrria, eta proposamena duenean, bazkideen ezohiko batzarra deituko du).

Euskara. Normalizazioan Uztarrriak Udalarekin berme osoko akordioa lortzea, eta bitartean Bai Euskarari Ziurtagiria landu, eta EBPNko Aholku Batzordean planari jarraipen handiago egin. Hizkuntza eskubi-deetan kontzientzia sortu. Besterik: hitzaldiak...

Kultura. Kafe Antzokia: beharra islatu eta Udalaren konpromisoa lortu. Besterik: V. Kulturaldia, hiru kultur kartelera jarri eta eskuko agenda atera hilero...

Aurrekontua. 114.200.

Zuzendaritza. Laxaro Azkunek segituko du beste bi urtean lehendakari eta Leire Larrañagak diruzain. Idazkari berria, Mikel Arregi da.

Besterik. Kuota mantendu (24 euro), Hitzeko proiektu berrietan sartu... ◀

U

egin zaitez bazkide UZTARRIAN



Zure datuak Uztarrriari helarazteko aukerak:

- ▶ Julian Elorza Hiribidea 4, behe eskubia (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
- ▶ uztarrria@topagunea.com ▶ Telefona (eta faxa): 943 15 03 58 ▶ www.uztarrria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

NAN edo EHNA ▶

HELBIDEA ▶

HERRIA ▶

TELEFONOA ▶

E-MAILA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez) ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 24 euro.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarrria herri aldizkaria.
- ▶ *Joxe Takolo* eta *Imanol Elias* biografiak.
- ▶ *Euskarazko prentsa eta Azpeitia* liburuak.
- ▶ *Loiolarik ez balitz* liburuak.
- ▶ *Otsobeltz* liburuak.
- ▶ Erdi prezioan: *Mendi gida* eta *Azpeitiko efemerideak*.
- ▶ *Literatuzta* aldizkaria.
- ▶ *Urola Kostako Hitza*.

*HARPIDEDUNAK ▶

- Ez du diruz laguntzen.
- Jasoko dituzu.**
- ▶ Uztarrria eta *Hitza*.

1.042

bazkide gara dagoeneko Uztarrrian; eskerririk asko denei

JOAN...



Gurean ▶

JUAN JOXE UNANUE 'GOENATXO II.A'

▶ harrijasotzailea

“Giro polita egoten da hor”

Askotan izan da Juan Joxe Unanue *Goenatxo II.a* azkoitiarra gurean. Santotomasetan ere hemen izan zen semearekin harri jasotzen.

Zer moduz santotomasetan?

Ondo. Hemen, egun hori, herri kiroleko plaza handia izaten da eta egundoko giro polita egoten da. Aurten, gainera, eguraldiak ere lagundu zigun.

Nolakoak gara azpeitarrak? Zer dio azkoitiar batek?

Ni hamar urtean Azpeitian bizitakoa naiz. Orain Azkoitian bizi naiz, baina nik ez dut uste jendeak esaten duen diferentzia hori da goenik. ◀



Jokin Uranga finaleko atean

Abenduaren 18an jokatu zen Bertsolari Txapelketako finala eta Jokin Uranga atean gelditu zen, puntu batera. Atano III.ean jokatu zen azken finalaurrekoa, Urangak saio polita egin zuen, baina ez zuen Sustrai Colina gainditu. Atanon laugarren egin zuen, sailkapen nagusian bederatzigarren. Argazkian, Donostian, Atano III.ean.



Euskal Eskola Nazionala

Abenduaren 10ean Euskal Eskola Nazionalaren Eguna ospatu zuen Ikasberri Azpeitiko Ikastolak. Eguna osoan ekitaldi desberdinak egin zituzten. Argazkian, Aitor Azpillaga zuzendaria hizketan.

Karmelo Etxegarai Ikastolak 'Q' saria

Karmelo Etxegarai Ikastolak abenduaren 22an jaso zuen zilarrezko 'Q' saria, “kalitateko zerbitzua eskaintzeagatik eta kudeaketa berritzaileagatik”. Gas-teizen egin zen ekitaldia (argazkian).



Gipuzkoako kros lehia herrian

Abenduaren 18an izan zen Ikasberri Azpeitiko Ikastolaren kirol taldeak antolatutako VIII. krosa. Gipuzkoako txapelketa jokatu zen eta Jose Antonio Blancok eta Itziar Urdangarinek lortu zuten titulua.



ABENDUAK 17 ▶ EHNA tramitatzeko eguna izan zen herrian. 18 berri egin ziren. **ABENDUAK 18** ▶ Denis Uzin 27 urteko azpeitiarra hil zen Baqueiran *snow* egiten ari zela. **ABENDUAK 20** ▶ *Txapel*-en omenezko bertso jaialdia izan zen Betharramdarren elizan. Jende asko kanpoan gelditu zen lekurik gabe. **ABENDUAK 21** ▶ Santo Tomas Eguna ospatu zen herrian. Talo, txorixo eta hainbat ekitaldiz gozatu ahal izan zuten bertan ibili zirenek. **ABENDUAK 21** ▶ Udalak Xabin Aranaga lasterkalariari eman zion kirolaririk onenaren saria.



URTARRILAK 19 ▶ Helduen danborrada ibiliko da herriko kaleetan, udal musika bandaren laguntzarekin, 22:15ean hasita. 00:00etan bandera igozteko, plazan. **URTARRILAK 20** ▶ Herriko agintariak korporazioan meza nagusira. Herriko kaleetan prozesioa, 10:30ean hasita. **URTARRILAK 20** ▶ 12:00etan sokamuturra plazan. **URTARRILAK 20** ▶ 12:30ean umeen danborrada, Aranetik irtenda. **URTARRILAK 20** ▶ 16:30ean hasita, sokamuturra herriko kaleetan. **URTARRILAK 20** ▶ 00:00etan banderaren jaitsiera.



ERREGEAK HERRIAN IZANGO DIRA.

Urtarrilaren 5ean Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak Azpeitian izango dira herriko umeak bisitatzen. Arratsaldean izango dira kaleetan gozokiak banatzen.

URTARRILAK 5 ▶ 19:30ean ▶ Herriko kaleetan ▶ Udalak antolatuta

MIKEL IBARTZABAL ▶ Udaleko Festa Batzordeburua

“Pare bat talde arratsaldean kalean ibiltzea aztertzen ari gara”

Mikel Ibartzabal Udaleko Festa batzordeburua da, eta buru-belarri dabil aurtengo sansebastianak prestatzen. Ez da berrikuntza handirik izango helduen danborradan, baina bai zenbait gauza berri.

Alde batetik, helduen danborradan irtengo diren talde guztiei xirak banatuko dizkiete. “Iazkoa berriro gerta ez dadin, alde aurretik xirak banatuko dizkiegu talde guztiei”, azaldu du Ibartzabalek.

Baina danborradan irten aurretik entseatu ere egin behar izaten dute, eta hor ere aldaketak izango dira. “Lau entsegu egun izango dira, eta Izarraitz frontoian egingo dira. Horrek badu eragozpen bat, han ezin baita erre”, dio.

Sansebastian egunez, umeen danborradan ere izango da nobedaderik. “Umeen danborradan talde

berri batek irtengo du; Bizkaiko Tertzioak izango dira, eta Karmelo Etxegarai Ikastolako umeen taldea izango da”.

Arratsaldean ere danbor zarata izango da agian kalean. “Pare bat talde arratsaldean, zezena dagoen bitartean, kalean ibiltzea aztertzen ari gara. Hori egiteko, ordea, talderen batek prest azaldu behar du. Ea gabon ondoren norbait agertzen den”, azaltzen du Ibartzabalek. ◀

URTARRILAK 19 ▶
Helduen danborrada.

- ▶ 22:30.
- ▶ Errebaletik hasita.
- ▶ Udalak eta taldeek antolatuta.

...ETORRI



Besterik ▶

IKASTAROAK ▶

Urtarrilak 4.

- ▶ Capoeira.
- ▶ 18:30etatik 19:30etara.
- ▶ Zapo Txokon.

Urtarrilak 10.

- ▶ Txalaparta ikastaroa.
- ▶ 18:30etik 20:00etara.
- ▶ Zapo Txokon.

Urtarrilak 10.

- ▶ Sukaldaritzaren hastapenak.
- ▶ 18:30etik 20:30era.
- ▶ Zapo Txokon.

Urtarrilak 10.

- ▶ Taichi.
- ▶ 10:30etik 12:30era.
- ▶ Zapo Txokon.

Urtarrilak 12.

- ▶ Elikaduraren garrantzia.
- ▶ 18:30etik 19:30era.
- ▶ Zapo Txokon.





Antton Elorza, Maria Angeles Amenabar, Juan Joxe Bikendi eta Juan Luis Uria kooperatibetako ordezkariak, Domusako tailerlean.

kooperatiben ZEREGINA

Herri mugimendutik sortu ziren lehen kooperatibak Azpeitian: Obrera, Euskalduna, Danona... Nolakoak izan ziren hasierak? Nolakoa da gaurko egoera?

► Testuak: Ihintza Agirretxe ► Argazkiak: Leire Larrañaga eta Ihintza Agirretxe

Asko aipatu da MCCk 50 urte bete berri dituela eta. Azpeitian aspaldi sortu zen lehen kooperatiba; Obrera izan zen. Ordutik hainbat sortu dira. Gaur egun kooperatiben ideiak zalantzan jartzen dira askotan. Uztarriak herrian kooperatibek izan duten ibilbidea eta gaur bizi duten egoeraren berri jakin nahi du gertutik; horretarako Juan Luis Uria Domusako lehendakaria, Joxe Luis Bikendi Danonako lehendakaria, Maria Angeles Amenabar Zubiolako kudeatzailea eta Antton Elorza Lan Mobe-leko lehendakaria bildu ditu mahai baten bueltan.



Nolakoa zen orain urte batzuk kooperatibismoaren mugimendua herrian?

Joxe Luis Bikendi. Nik gogoratzen dudana zera da: langileen egoera ez zela batere ona eta kooperatibena oso irtenbide ona zela. Aparte, mugimendu politiko handia zegoen orduan herrian, eta gure idealekin bat sozialismoa lortzeko asmoz-edo gazte asko sartu zen mugimendu horretan.

Arrasateko kooperatiben esperientzia ezaguna zen ordu-rako. Hemen hango eraginik nabaritu al zen?

Bikendi. Nik uste dut ezetz. Beti

begiratzen diozu besteen esperientziari, baina nik uste dut norberak bere bidea ireki behar izaten duela, eta hemen ere horrela izan zen.

Maria Angeles Amenabar. Nik uste dut bakoitzak bere berezitasunak dituela, baina, azken batean, ideologikoki-eta Arrasatekoari segitu izan zitzaiola hemen ere. Erreferentzia, baterako edo besterako, beti han egon da.

Juan Luis Uria. Caja Laborala ere hor dago, eta horra ere begiratu beharra zegoen; izan ere, hark laguntzen zuen. Proiekturen bat zuenak, Caja Laboralari aurkeztu behar izaten zion, eta honi

Florza

Jaiotze data. 1950ean jaio zen.

Bizilekua. Azkoitiarra da eta Azkoitian bizi da.

Ibilbidea. Danonan hasi zen lanean gaztea zela. Han hamar urte inguru egin zituen lanean. Ondoren Lan Mobelera joan zen eta han dihardu urte luzez informatiko lanetan. Urtebete eskas darama lehendakari postuan; batzordean aurretik ibilitakoa da.

Amenabar

Jaiotze data. 1946an jaio zen.

Bizi lekua. Azpeitiarra da.

Ibilbidea. Udaletxean hasi zen lanean. Ondoren Euskaldunan aritu zen lanean. Ama izan ondoren, lana utzi egin zuen. Umeak hazi zituenen berriro lanean hasi zen, Zubiolan hain zuten. Gaur egun bertako kudeatzailea da Amenabar.

Bikendi

Jaiotze data. 1954an jaio zen.

Bizilekua. Urrestillan bizi da Bikendi.

Ibilbidea. 16 urterekin hasi zen Danonan lanean, eta ordutik han dabil. Orain sei urtetik Danonako lehendakari postuan ari da lanean. Bederatzi urte daramatza batzordeko kide izaten.

Uria

Jaiotze data. 1961ean jaio zen.

Bizilekua. Azkoitiarra da jaiotzez, eta bertan bizi da.

Ibilbidea. 24 urte zituela hasi zen lanean Domusan. Hasieran langile, ordoren akziodun eta gero kooperatibako kide izan da. Orain sei urtetik, kooperatiba sortu zenetik, lehendakari lanetan dabil.

bideragarria iruditzen bazitzaion eta onartzen bazuen, *División Empresarial* deitzen delakora pasatzen zinen. Gero iristen ziren laguntzak.

Bikendi. Kooperatiben mugimendua eliza ingurutik edo apai-zen bat tartean zela hasi zen. Eta, nik uste, hemen ere egongo zela, eta hori Arrasateetik etorriko zen.

Amenabar. Ni Danona eta Euskaldunaren sorrerarekin gogoratzen naiz, eta ez dut gogoan abaderik ibili zenik. Baina bi enpresa horien sorreran langile mugimendua handia izan zen.

Kooperatibak aztertzen zituztenek diote, hiru motibazio zituztela Arizmendiarrietak-eta: erlijioa, sozialismoa eta herri-gintza. Hemen ere horrela izan al zen?

Bikendi. Kontuan hartuta Danonako zaharrek nola bizi zuten bizi-modua, nik uste era berean edo antzekoan bizi zela mugimendua hori, eta orduan ideiak ere berak zirela.

Amenabar. Nik uste kooperatiben mugimenduan langile mugimenduko jendea hasi zela mugitzen, eta orduan beste aukerarik ez zegoenez, eliza barruko mugimenduak ere ibili ziren. Garai hartan elizak mugimendua asko babestu zituen.

Antton Elorza. Francoren garai hartan Euskal Herriko mugimendua askok edo gehienek bilatu izan zuten elizaren babesa; ikastolek, kooperatibek... Aukera bakarra edo bakarrenetarikoa hori zen nire ustez, mugimenduak aurrera egin nahi bazuen.

Gaur egun ba al dago alderik kooperatiba baten eta S.L. edo eta S. A. baten artean?

Bikendi. Beti egon diren aldeak daude orain ere. Kooperatiba baten irabaziak edo enpresa kapitalista batek sortzen dituen irabaziak bideratzeko garaian dago alderik handiena.

Uria. Kontuan hartuta kooperatibetan denek dutela zeresana, eta enpresaren gestio planean parte hartu dezaketela. Kooperatiba ►►

“Gaur egun kooperatiba batera doanak ez du kooperatibista kontzientziarik”

JUAN LUIS URIA ▶

Domusako lehendakaria



▶ baten organorik garrantzitsuena batzarra da eta batzarretan pertsona bat boto bat da. Hortik beste organoak sortzen dira. Enpresaren egituraketan parte hartzen dute zuzenean bertako langileek.

Elorza. Ezberdintasunik handiena parte hartzeko mailan eta moduan dago. Kooperatibetan gauzak erabakitzean eta zeure esku bideak dituzu. Enpresa kapitalistetan ere zeure erara har dezakezu parte, baina ez da gauza bera. Kooperatibetan lana norberarentzat eta ingurukoentzat egiten da, eta besteetan nagusiarentzat, eta hori lanerako izaten den motibazioan ere oso ezberdina da.

Uria. Enpresetan, hilabetero zure diru saria jasotzen duzu. Guk, ordea, aurrerapen bat jasotzen dugu. Hau da, guk hileko diru saria aurrerapen gisa jasotzen dugu. Gero, irabaziak badaude, eta bakoitzak egin duen lanaren arabera portzentaia jasotzen du.

Elorza. Irabaziak banatzen diren bezala, zorrak ere banatu egiten

dira, ordea. Garai batean irabaziei soilik begiratzen zitzaion, eta kooperatibismoaren alde txarrak ahaztu egiten zitzaizkigun.

Amenabar. Kooperatibek pertsonarengan sinesten dute eta hori da garrantzitsuena nire ustez. Gure kasuan, irabaziak de-

Danonaren sorrera

Juanito Odriozola, berriz, Danonako sorrerako kidea izan zen, eta oraindik ondo gogoan du nolakoak izan ziren hasierako urte eta une haiek: “Hasieran sei-zortzi laguneko taldea sortu zen, eta bilerak egiten hasi ziren. Niri bilerak egiten ari zirela esan, ideia gustatu eta horrelaxe hasi nintzen neu ere bileretara joaten. Mikel Letamendia, Anastasio Agirre, Domingo Orbea, Patxi Maizek... lideratutako mugimendua izan zen. Hasierako ideia, langileek bizi zuten egoerari buelta ematen saiatu eta bizimodua pixka bat hobetzen saiatzea zen. Danona sortu zenean 23 kide ginen, baina tailerra bukatu aurretik beste bi ere sartu ziren. Gurea puntu eta apartekoa izango zen. Ez zen abadeek sortutako edo mugitutako mugimendua izan. Obrera zen Azepeitan sortu zen lehen kooperatiba, ondo zihoan eta horrelaxe sortu zen Danona, eta gurekin bateratsu Euskalduna kooperatiba. Hasierako urteak errazena izan ziren; egindako altzari guztiak saltzen ziren. Orduan kalitateari ez zitzaion orain bezala begiratzen, prezioak ere denentzako modukoak ziren. Lehen hamar urteak behinik behin, onak eta errazak izan ziren; hogeit artekoak ere ez ziren txarrak izan. Hortik aurrera hasi zen beherakada. Lanean okerren jardun ginenean izan genituen irabaziak, eta lanean ondo hasi ginenean, berriz, enpresa maldan behera joaten hasi zen”.

“Kooperatibek pertsonengan sinesten dute, eta hori da garrantzitsuena nire ustez”

MARIA ANGELES AMENABAR ▶

Zubiolako kudeatzailea



nantzat dira, baina konfiantza ere denengan dago. FQM modeloa eta horrelakoak izatea oso ongi dago, baina pertsonengan ez badago konfiantzarik, alferrikakoak dira gainontzeko gauza guztiak.

Domusa eta Zubiola ez dira euren sorreratik kooperatiba,

gero egin ziren. Zein izan zen horretarako arrazoa?

Uria. Orain 26 urte sortu zen Domusa. Gero Teofilo Dominguezek enpresa sortu zuen. 1982an han lanean geunden 11 bat laguni S.L.A egitea eskaini ziguten eta horixe egin genuen 1999 arte. Hasieran, lehen zegoen sortzailea (Teofilo Dominguez) eta beste 13 bat lagun izan ginen, baina 1999an, kooperatiba egin zenean, 80 bat bazkide sartu ziren.

Amenabar. Zubiolak 2006an 40 urte beteko ditu kooperatiba bezala. Lehen bi bazkide zituen: Zubizarreta eta Badiola. Haiek langile mugimendutik oso hurbil ibili ziren, eta horrelaxe egin zen kooperatiba.

Zentzu kooperatiboaren higitzea/gastatzea/urritzea aipatzen da sarri askotan. Krisi moduko bat dagoela ere esaten da kooperatibetako baloreetan.

Bikendi. Nik uste aldaketa bat izan dela gai horretan. Gu hasi ginenean, mugimendu handia zegoen politikan eta orduan gure



Danona Kooperatiba martxan jartzeko paperak egindakoan, kideak Loiolan.



Danonako sortzaileak kooperatibako paperak egin eta bazkaltzera joan ziren.

“Gaur egun geure baitan kooperatibismoaren ideia kontrajarri asko ditugu”

JUAN JOXE BIKENDI ▶
Danonako lehendakaria



“Francoren garaian Euskal Herriko mugimendu askok bilatu zuten elizaren babesa”

ANTTON ELORZA ▶
Lan Mobeleko lehendakaria



adineko jende asko sartuzen mugimendu horietan. Ikusita kooperatiben ideiak gurekin bat egiten zuela, kooperatibak ere ondo ikusiak ziren. Gauzak ondo doazenean eta dirua irabazten duzunean, ordea, gauza asko aldatzen dira. Gaur ez da politika lehen bezala bizi.

Uria. Gizartean ere badago kezka hori eta, batik bat, langileek dute kezka. Askotan esaten da irabazi ekonomikoei lehentasuna ematen zaiela beste guztiaren gainetik. Kooperatibak sortu zirenean, gosea zela, gerra zela, nahiz eta politika kontuak izan leku guztietan, nik uste langileek lanerako orduan burua lanean gehiago zutela. Horrekin ez dut esan nahi oraingo gazteak ez daudenik lanerako prest. Baina lehen lana, lana zen, eta gaur egun lana bigarren mailako zerbait da. Lana behar da bizitzeko, baina orain ematen du lehendabiziz bizi egin behar duzula eta gero lana (Domusan jendeak lan asko egiten du eta asko inplikatzeko da). Baina bestela, ez dut kezka

Zerrenda

Azpeitian kokaturik dauden kooperatiben zerrenda.

- ▶ Euskadiko Kutxa.
- ▶ Lurgintza Nekazari Kooperatiba.
- ▶ Zubiola.
- ▶ Ibai Eder Nekazal Kooperatiba Elkartea.
- ▶ Danona.
- ▶ Eroski.
- ▶ Urola Aholkularitza.
- ▶ Gurekin Kontatu Gureko Nekazal Kooperatiba.
- ▶ Cooperativa Viviendas Residencial SCL.
- ▶ Ekiz SCL.
- ▶ Landa Aholkularitza.
- ▶ Ikasberri Azpeitiko Ikastola.
- ▶ Lar Etxeko Altzariak.
- ▶ Lan Mobil.
- ▶ Caja Rural de Navarra.
- ▶ Ardi Gazta Kooperatiba.
- ▶ Hermano Garate Etxebizitza Kooperatiba.
- ▶ Euskaraz Kooperatiba.

Iturria: Iraungi Lantzen

handirik somatzen. Kooperatiben segurtasun horrek jendea lasaitu ere egiten duela uste dut.

Gaur egun nola bizi da kooperatibismoa? Kooperatibetara lanera doazenek ba al dute kooperatibista kontzientziarik?

Uria. Gaur egun kooperatiba batera lanera datozenek, hasieran ez dute kontzientziarik. Domusan lan eske datozeinei gure kooperatiba zer den azaltzen diegu. Nik uste hasieran kooperatibista izateko jendea gehien erakartzen duena lan finkoa izatea dela.

Bikendi. Gaur egun geure baitan kooperatibismoaren ideia kontrajarri asko ditugu. Norbait kooperatiba batean lanean hasteko lehen arrazoia lana ziurtatuta izatea bada, kooperatibismoaren idealetatik oso urrun gabiltza. Nik uste kooperatibismoan bere ideia eta idealekin sinetsi behar eta nahi badugu, gero praktikan jendea lanean beste edozein enpresatan ariko balitz bezala ibiltzen bada, ez goazela batere ondo.

Amenabar. Jendea gure enpresetara etortzen denean lan bila,

ez dut uste kooperatibismoagatik etortzen denik. Nik uste jendea, enpresaren inguruan duen informazioaren arabera etortzen dela. Lagunen batek, ezagunen batek edo beste norbaitek enpresa horretako baldintzak eta beste hainbat informazio eman ostean hurbiltzen dira. Eta ez dira kooperatibismoaren inguruan dakitenagatik hurbiltzen.

Bikendi. Gaur egun dugun balore bakarra dirua da eta gainerako guztiak galtzen ari gara. Denok behar dugu dirua. Azken batean, kooperatiba ez dugu behar bizitzeko, baina dirua bai. Beste garai batean aurrera joateko elkartu eta kooperatibak egin zituzten, baina ideal haiek galtzen doaz.

Elorza. Kontzientzia soziala ere joan da galtzen. Gure garaia beste bat izan zen eta orduan guztia beste era batera bizi zen. Lehen alderdi politikoak, taldeak... askoz gehiago bereizten ziren. Gaur egun ez da orduan bezala. Eta kooperatibismoaren ideiak ere galtzen joan dira. ◀

ATC TORREALDAY
aholkulari kontseilariak

Iberotarren plaza, 7 behea
Tfnua.: 943 15 05 09
Faxa: 943 15 16 74
azpeitia@atctorrealday.com

PILDAIN
Inmobiliaria
www.pildain.com

Harzubia 6, behea
Tl. 943812167 - Fax: 943150774
e-mail: inmobiliaria@pildain.com

KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

arte

- **Dibujo eta eskulanak** (haurrak) 17:30/19:00
- **Pintura** 17:30/19:00
- **Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 619 586 652
matrikula urte guztian zabalik



gizarte ekintza

ALKOHOLAREN beldurra

Elkarrizketarako geratu eta gauza bat baino ez du eskatu: anonimotasuna. "Hori dugu baldintza taldean". Al-Añon alkoholikoei laguntzeko taldekoa da. Izena ez, baina badu zer kontatua

▶ Testuak: Enekoitz Esnaola ▶ Argazkiak: Urke argazki denda

Nik orain dela 35 bat urte ezagutu nuen gizona. Eta txispatu egiten zen. Egia da, alkoholarekin momentu onak pasatu ditugu, baina hura beti txispatzen zen. Ezagutu eta bospasei urtera ezkondu ginen, eta hura gero eta gehiago etortzen zen etxera txispatuta; edanda, esango nuke. Horrek familiako elkarbizitza trabatu egiten du, arazoak sortzen dira. Baina ni ez nintzen ohartu ezkondu eta zazpi bat urtera arte hura arazoa zenik. 'Zergatik edaten du hainbeste?', 'nik zer egin dut gaizki?' eta horrelako galderak egiten hasi nintzen, baina ez gizonari, baizik eta neure buruari. Eta hasten zara pentsatzen zeuk duzula errua. Hori da gauzarik txarrenetako bat. Azkeneko, pertsona bezala deuseztu egiten zara.

Halako batean berari galdetzera iristen zara, ea zergatik edaten duen gero eta gehiago, baina hark gezurra, gezurraren atzetik. Batean esa-

Anonimotasuna

"Astero biltzen gara Al-Añon taldean, ostiralero 20:00etan, Aitonena I-en, bigarren solairuan, eta han edozeinek ditu ateak zabalik eta inor ez dago behartuta joatera. Elkar laguntzera joaten gara, irakurketarako materiala lortzeko-eta arduradun bat dago, elkarren esperientziak kontatzen ditugu... Hogei bat lagun bildu izan gara, eta baldintza bat dugu: anonimotasunari eutsi behar diogu. Hau da, ezin dugu esan hau eta bestea joaten direnik taldera, honek edo hark alkohol arazoak dituenik etxean edo izan zituening". Argazkikoa, Uztarriak elkarrizketatu duen emakumea bera da, baina jendeak zein den antzemateko moduan jarri gabe.

ten dizu etxera zetorrela lagun bat ikusi duela eta hark eraman duela taberna batera eta bestera. Hurrena, ez duela horrenbeste edan eta zertan ari zaren. Baina hurrengoan igual geratu zara harekin halako ordutan nonbaitera joateko, iritsi ordua, pasatu ordua, eta gizona, falta; edaten. Gezurra gero.

Arazoaz ohartzen zarenean, kalera irteteko beldurra sartzen zaizu. Aurretik ez. Hau da, aurretik sinpatikoa eta dena iruditzen zaizu. Joan ezkontza batera eta txoroarena egiten zeure gizona, eta inguruko denak, barrez. Joan afaltzera eta berdin. Afari bat, bestea eta beti berdin, eta orduan hasten zara pentsatzen jendea zure gizonaz ari dela barrez, ez hain justu egiten duenaz. Etxera joan eta errietan hasten zara, baina alkoholikoek ez dute aitoritzen gaizki egin dutena. Euren barruan bai sentitzen dutela errua dutela, baina kanpora begira ezin dute hori esan eta, orduan, egiten

dutena justifikatu egin behar. Eta harremana okertzen hasten da. Nire kasuan hala izan zen. Gure gizona ez zen egunero mozkortzen; lanetik irten, txikiteoan ibili eta etxera, zera handirik gabe. Afaritan bai, baina gertatzen zen gero eta afari gehiago egiten zituela; eta sagardo garaia iristen zenean...

Esan bezala, beldurra sartzen zaizu. Ez duzu kalean gizona edanda ikusterik nahi. Lotsatu egiten zara. Igual kuadrilarekin zaude, joaten zara halako tokitara, ikusten duzu gizona lagunekin eta zu, etxera; ezkutatzera. Lekuak eta orduak saihesten ibiltzen zara. Begira, gure alaba lehen lagunekin Gau Txorira joaten zenean, esaten zioten, 'eh, atzo zuen aitte ibili zunan bettebette eginda', eta horrek gure alaba hondatuta uzten zuen, hondatuta. Seme-alabek asko sufritzen dute, eta gaztetxo den seme-alabari trauma ere geratzen zaio, eskolako kideek-eta, adina ere halakoxea dutelako, gogoratu egiten diotelako aita mozkorra duela. Angustia da, eguna joan eta eguna etorri. Eta hori, ez da bizitzea. Harekin duzun elkarbizitza puskatzen joaten da.

Nik ez nuke esango bat alkoholikoa denik bere inguruagatik, dituen lagunengatik edo. Bai, gehienetan haiek in-

siko da edaten, baina lagunak etxera joaten dira ordu normalean eta alkoholikoa ez; egon seguru topatuko duela baten bat kalean, eta harekin ibiliko da eta, bestela, bakarrik. Ardo bat edo zerbeza bat edan, eta bestea behar du, eta bestea, eta azkenerako ez daki non dabilen, zeinekin... Behin galtzen denean, erabat galtzen da.

Baina zeure gizona (edo besteren kasuan, emaztea, edo anaia...) hortik, nolabait esatearren alkoholiko 'ofizial' hartzera, aldea dago. Hau da, hura alkoholikoak sendatzeko talderen batera eraman nahi duzunean, halako zerbait sartzen zaizu barruan. Izan ere, zuk pentsatzen duzu alkoholikoak lurtean etzanda ibiltzen direla, kalean lo geratzen direla, eta ez, alkoholikoak era askotakoak daude eta ez prexixo aipatutako era horretakoak. Eta orduan, buruhaustea. Baina nik ja gizona tratamendura eraman behar nuela garbi neukan.

Bestela, apartatzera nindoan. Alabak ere esaten zidan hori, uzteko. Baina bi ezintasunekin aurkitzen gara. 1. Gizona edanda ez dagoenean, zuk hura maite duzu eta... 2. Edanda dagoenean, parte sartzeko gogo sartzen zaizu, baina ez zara ausartzen, bi arrazoigatik: batetik, hura gabe familia ezin duzulako aurrera atera, nire adineko emakumeak (50 urtetik gorakoak) soldatarik ez duelako, eta, bestetik, badakizulako gizonak jakiten badu parte sartu duzula, hura kapaz dela zu jotzeko. Azpeitian badaude tratu txarren kasuak, guk badakigu badaudela, baina ez dira ia batere salatzen, hezurretarainoko beldurragatik, alkoholikoak beraiek publikoki umiliatuta sentitzen direlako. Zuk pentsatu, eh, edaten duenak ez dakiela zer egiten duen; ez da akordatuko aurreko gauean zer egin duen. Gaur egun, hala ere, halako bikote gehiago bereizten dira, zorionez ema-

kume gehiago daudelako soldata dutenak, salaketa sartzera badakitenak nora joan behar duten, nola atera aurrera familia, baina gure garaian...

Nik mirariatzen ez dut sinesten baina gure gizonak edateari utzi zionean, gure etxean miraria gertatu zen. Ez dakizu nola aldatu zen giroa! Orduan hasi zen seme-alabekin itxurako harremana izaten. Lehen, edaten zuenean, ez zen kezkatzen eskolako kontuez eta. Lanera joan, txikiteora, etxera, *sota-caballo-rey*. Gero, aldiz...; hori aldea!

Horretaz badira hemezortzi urte. Zenbat eskertzen dudan Bilboko bidaia hura! Hau da, nik hemengo mediku bat ezagutzen nuen, honek gure gizona ere bai, eta medikuak agindu zidan gure gizon horri esango ziola edana uzteko. Baina medikuek beraiek askotan ez dute ulertzen kasua; igual gaixoari egiten dizkiote analisiak, horiek negatibo ematen dute eta medikuek diote ondo dagoela. Baina nola ondo dagoela, edanean dabil eta? Hori gertatzen den mediku harekin, eta neuk azkenerako nire bizimodua dena azaldu nion, uler zezan kasua. Halako batean, behintzat, esan zion gizonari esan beharrekoa, beste mediku espezializatu batengana bidali gintuen, Bilbora, honek lagundu egin zigun janari, medikamendu aldetik-eta, eta orduantxe salbazioa. Segituan Zarautzera jo genuen, Alcoholicos Anonimoser. Egun batetik bestera utzi zion edateari. Gaur arte.

Harrezkero, herrian alkoholikoen senideei-eta laguntzen gabilta biok. Kasuak badaudelako, bai, Azpeitian: gizonetzkoak, andre-gizonak, emakumeak; Azpeitian emakume askok edaten dute, dezentek. Kasuak daude Azpeitian. Batzuk besteak baino gogorragoak, egunerokoak. Hau da, asko edaten dela Azpeitian". ◀



gaztaina makina

HISTORIKOA

Euskal Herriko gaztainak erretzeko makinarik zaharrena edo zaharrenetarikoa dago herrian

► Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe

Negua, Gabonak, hotza, elurra, euria, sua... ez da, ez, panorama txarra gaztaina erreak jateko. Herrian bada horiek erretzeko makina berezi eta historiko bat. Euskal Herriko gaztaina makina zaharrenetarikoa da.

Orain 25 bat urte Santa Luzi egun batez erosi zuten makina hiru azpeitiarrek; Koldo Aldalurren, haren anaiaren eta lagun baten artean erosi zuten. "Zumarragako feriatik bueltan gentozela ateak irekita zituen lokal batean ikusi genuen. Gustatu egin zitzaigun, sartu eta hiruron artean erosi genuen", gogoratzen du Koldo Aldalurrek.

Ondoren, Azpeitiko plazan gaztainak saltzen hamar urtean ibili ziren. "Guk Eperraneko Joxe Antoniorekin tratu bat egin genuen. Guk gaztainei gatza botatzen genien, eta horren trukean Eperranekoak guri edaria ematen ziguten debalde", dio. Lan ederra omen da herriko errealitatea ezaizteko.

Baina nola ote dakite makina Euskal Herriko zaharrenetarikoa dela? "Behin plazan geundela gizon bat hurbildu zitzaigun eta

ea makina hori non egindakoa zen galdetu zigun. Guk ez genekiela esan genion. Berak esan zigun bera gasteiztarra zela eta makina ere hango enpresa batean egindakoa zela. Gainera, fabrika hark egindako lehenengo modeloa zela eta Euskal Herrian egongo den zaharrenetarikoa zela. Modelo bereko besteren bat agian, egongo zela, baina ez asko", gogoratzen du. Makinak 85 urte inguru dituela kalkulatu dute.

► **URTEAN BEHIN.** Baina plazan gaztainak erretzeari eta saltzeari utzi zioten, eta orain urtean behin ateratzen dute makina, Damaso Azkue auzoko bizilagunak elkartzeko. "Orain urte batzuetatik, urtero Santo Tomas inguruan Nekane dendakoak gaztainak merke lortzen ditu, guk makina atera eta erre egiten ditugu eta Oilo Soro elkarteak sagardoa ateratzen dute. Aurten, Gaztetxeak umeentzat jolasak antolatu zituzten; auzokide berriak dira eta pixkanaka auzora gerturatzen joateko bidea egiten hasi gara".



► **ENFERMERO BILA.** Aurten goa egun tristea izan zen, ordea. Izan ere, makina puskatu egin zitzaien. "Makina gehiegi berotu genuen eta makinaren barrualdea hondoratu egin zitzaion. Orain konponduko duen 'artista' bat behar dugu", adierazi du. Ez du erraza ematen makina kon-

pontzeak, baina norbaiti ideia bat etorriko zaiola eta konponduko dutelako ustean daude Koldo Aldalurrek eta.

"Orain urte batzuk *lifting* egin genion, Lanbide Hastapeneko laguntzarekin. Lau hilabete izan genuen 'ospitalean', eta haiek esan zigutenez, zazpi kolore kapa zituen. Beraz, guztia lixatu eta mehetu ederra hartu zuen". ◀



ZALDI GAINEAN BANDERA ASTINDUZ.

Aspaldidanik ospatzen da herrian urtarrilaren 19an helduen danborrada. Gaur egun hogeitaldetik eta ehundaka danborjolek irten ohi dute. Baina orain urte batzuk bestelakoa zen itxura. Garai batean, banderaduna ere zaldi gainean joaten zen, bandera astinduz. Desfileari begira, orain baino jende gutxigok egon beharko zuen, bestela zaldia ederki beldurtuko zen.

► Testua: Ihintza Agirretxe ► Argazkia: Uztarria

Efemerideak ▶ urtarrila



Azpeititik Zestoara doan bidea. IHINTZA AGIRRETXE

azpeitia TXUKUNTZEN

Herriaren onerako neurri asko hartu dira historian; hona hemen batzuk

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

1801-URTARRILAK 5 ▶

Udaltzainak. Herrian ziren bi udaltzainek herriko etxean bizitzaren jartzea erabaki zuten, batez ere bertako kartzelan zeuden presoak hobeto zain zituzten.

1986-URTARRILAK 3 ▶

Itxiera. Ertzaintzak Kaka Flash irrati librea itxi zuten.

1991-URTARRILAK 8 ▶

Aparkalekua. Enparantza Nagusiko parkimetroa jarri zuten martxan.

1686-URTARRILAK 23 ▶

Bideak. Herriko bideak ez ezik, Zestoarekin bat egiten zuena konpontzea beharrezkoa egiten zela ikusita, lehen astelehenean bertan lanari hasia erabaki zen. Eta horren berri emanez, garraioak egiteko eran zirenei. Langileei egun bakoitzeko libra bat ogi, sardina bat eta behar hainbat sagardo eman zizkien fidelak.

1981-URTARRILAK 28 ▶

Uholdeak. Uholdeek kalte handiak egin zituzten bideetan.



Plazako parkimetroa.

1981-URTARRILAK 28 ▶

Onartutako proiektuak. Honako proiektuak onartu zituzten Udalak: Urola ibaiaren ertzak egokitztea, batez ere Loiola inguruan; parrokiko ataria egokitztea; Paulo VI.a eta Santutxo inguruak zoruztatzea; Paulo VI.a inguruaren saneamendua, elektrika indarra oraindik ez zen zenbait tokitara eramatea...

1951-URTARRILAK 29 ▶

Uniformea. Kale garbitzaileen zat uniformeak erostea erabaki zen. ◀

Pertsonaia ▶

ARRUTIRI OMENALDIA.

Urtarrilaren 19an bost urte beteko dira Jose Arruti Oriyo danborradak omendu zuenetik. 2001ean omendu zuten. Arrutik urteak daramatza danborrak egin eta konpontzen, eta merezitako omenaldia egin zioten danborradakoek.




Datua ▶

1901

'ARRIYA'-TARREN HASIERA.

Inazio Orbegozo *Arriya* jaio zen urtarrilaren 6an. Inazio Orbegozo, aizkolaria izan zen, eta hura izan zen, gainera, *Arriya* bezala ezagutu diren aizkolari handien aitzindaria. Orbegozoren atzetik etorri ziren gainerontzeko guztiak.

Argazkia ▶



PLAZARA AZKARRENA, ZEZENA.

2001eko sansebastianetan —urtarrilaren 21ean— sokamutilak baino lehenago iritsi zen zezena plazara Erdi kaletik. Ez da ohikoa horrelakoak gertatzea, baina orain bost urteko zezen hura azkarra zen gero! 'Idi Beltz' izena zuen. Soka, Hispanonekoan lotu zuten.

Kontua da... ▶

Herritarren arteko haserre eta zigorra



Imanol Elias
Odriozola

Azpeitian 1552an osatu ziren ordenantzak, probintziako egokienak bezala hartu izan dituzte.

Haserretuta, norbaitek 'traidorea' edo 'mozkorra' deitzean, arriskua zuen isuna jasotzeko; ordaintzerik ez bazuen, hilabete erbestean pasatu beharko zuen. Ezpata, puinala... ateratzeak isuna eta hiru egun eta gau kartzelan pasatzea zekarren. Beste armaren bat ateratzean, tximetatik tiratzean edo aurkaria lurreratzetan, isuna jasoko zuen, armak galduko zituen eta kartzela zigorra izango zituen.

Zelatada baten ondoren odolik atera gabe beste norbait zauritzen zuenak, 500 maraiko isuna eta hogeita egun kartzelan egin beharko zituen. Balezta batekin tira eta zauririk sortu gabea, baldin ordaintzerik ez bazuen, lau urte egingo zituen erbestean, eta zauriturik, berriz, Gipuzkoako Anaiarteko legeekin epaituko zen.

Gogoan izan zuten agintariek, haserre bat sortzean, inguruan direnak bat edo besteren alde agertzen direla, arriskua gehituz horrela partaide gehiago izateko haserreak indar handiagoa harturik, eta parte hartzen zuten horientzat isuna bikoiztu egiten zuten.

Kontua eduki behar da, zigor horiek ezartzen zirela, baldin zauriak jaso zituenak auzi bat jartzen ez bazuen bere aurkariaren kontra.

Alkateak ahalmen osoa zuen herrian sor zitezkeen haserreak mozteko.

Beste bizitza bat zen garaian, beste era batera ulertzen ziren gauzak, eta esaten dugun ezaugarri honoko hau da. Herriak aurrez eginik zituen ordenantzen arabera, 300 maraiko isuna ezartzen zizaion biraoa botatzen zuenarentzat, eta azken horietan, berriz, ez da horrelakorik aipatzen, baizik eta legeekin soilik zigortua izango zela.

Garai bateko Azpeitia ▶ Milagros Iruretak kontatua

azpeitiarra? BAI, JAKINA

Zestoan jaio zen Milagros Irureta, baina azpeitiarra da; hori dio berak behintzat, eta kontrakorik esanez gero haserretu egiten da

▶ Testua: Ihintza agirretxe

Milagros Irureta azpeitiarra da, eta gogor egiten dio kontrakoa esaten dionari. Zestoan jaio zen, baina ez omen da zestoarra; azpeitiarra da, ez du dudarik. Beti ez da hemen bizi izan, baina inoiz ez du ahaztu bere herria: Azpeitia.

Txikitan, oso txikia zela, etorri zen hona bizitzera. Baina ez da Azpeitian soilik bizi izan. Milagros gorra da jaiotzez, eta umea zela bidali zuten Zaragozara (Espainia) gorren ikastetxe batera. Han ikasten aritu zen urte luzez. "Niri asko gustatzen zitzaidan eskolara joatea eta gauzak ikastea. Gainera, han gor gehiago zeuden eta

ondo ibili nintzen denok batera. Hemen gustura bizi nintzen, baina Zaragozan ere ez nintzen gaizki bizi", gogoratzen ditu gustura ume garaiko kontuak.

Garai hartan ez zen ohikoa ume bat kanpora bidaltzea ikastera. Baina Milagros Irureta Zaragozara joan zen, eta bertan pasatu zituen bere ikasle urteak. Hala

“Hemen gustura bizi nintzen, baina Zaragozan ere ez nintzen gaizki bizi”

MILAGROS IRURETA ▶ erretiratua



Azpeitian, Sanjuandegin, Salbe auzoan bizi da Milagros Irureta.




ere, oraindik umea zela bueltatu zen berriro herrira. "Zortzi urterekin bueltatu nintzen atzera etxera. Handik etorri eta hementxe ibiltzen nintzen, alde batetik bestera".

Ez zuen ikasten segitu eta, beraz, lanean hasi behar izan zuen. Beti etxeko lanak-eta egin behar izaten zituen: bizi osoa pasatu du, josi, bordatu eta bestelako lan txikiak egiten.

32 urterekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen; orduan lan gehiago izan zuen. Ez dituelako lau ume bakarrik; orain biloba bat ere badu, eta ez omen du saltzeko.

▶ **GAUR EGUN.** Beti ondo hartu omen dute. "Niri jendeak beti asko lagundu izan dit, baina orain lehen baino hobeto eta lasaiago bizi naiz. Orain ez dut lehen bezain beste ardura", dio, lasai-lasai. Orain Aitonenan kafea hartu lagunekin eta paseoa ibiltzen da. Umeak ere hazi ditu eta orain biloba mimatzea besterik ez du egiten. ◀

Hitz gezidunak ▶

	Zuhaitz nano	▼		IZENA	▼	Tarte	▼	Amasakoa	▼	Itsas arraina
	Irudi foto-grafiko			Emakume izena		Infin., galdu		Bokala		
	Nik dakart, hark ni ...	▶						Kanpo	▶	
	Barrea							Harrapa ezak!		
Gizon zaharrak	▼	Liskartsu	▶ ▼							
Arabako herria		DEITURA	*							
						Joan nadin	▶			
						Euskal Herria				
X. hilabetea	▶					Interjekzioa	▶ ▼	Jainko egiptoarra	▶	
Ipar EH-n, orain						Ikas eta Ari		U birritan		
				Neroni, neu	▶					Portu
				Norat atzikia						
Pl., txori mota	▶					Garrak	▶			
Umorezko kolpe						Lotan				
				Bokala	▶	Sexu eme	▶ ▼	Errep., gorotza	▶	
				Röntgen		Bokala		Bokala		
Gutuna	▶					Egokia	▶			Iodoa

* Azpeitiar bertsolaria

Hitz gurutzatuak ▶


EZKER ESQUIN: 1. Beldurra, ikara. Izan, eduki. 2. Norat atzikia. Zaldi eta zamarien ahoko edo muturrekoa. 3. Kanpo, landa. Presio unitate. Bi, zenbaki erromatarren arabera. 4. Eguzkiaren inguruan elipse formako orbita oso luzeetan bira ematen duten argizagiak. Kontsonantea. 5. Ohorezko hitz emate. Dozena erdi. 6. Kontsonantea. Neskatxa. 7. Islandia. Infusio mota. Oinarrizko edari. 8. Ibar, bailara. Niri. 9. Gipuzkoako hiria. Gari sorta.

GOITIK BEHERA: 1. Asiako estatua. Mingain. 2. Etor zaitetz! Sartu aditzaren oina. 3. Utikan! Oinaze. Hizki grekoa. 4. Bokala. Egiatan, egiazki. 5. Zazpi zati zazpi. Instintu. 6. Urratsez urrats ibiliz, urratsak eginez. Lehenengo bokala. 7. Modu atzikia. Suari dariona. Ukatzeko, ezetzatzeko. 8. Erne! Hitzarmena. 9. Nago. Gipuzkoako kostaldeko udalerria.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1					■				
2				■					
3			■				■		
4								■	
5	■					■			■
6		■							
7			■				■		
8						■			
9					■				

Soluzioak ▶

HITZ GEZIDUNAK



HITZ GURUTZATUA



UZTARRIAREN ABENDUKO ARGAZKI LEHIAKETA



Juanjo Goenaga Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 68. irabazlea. **Ziklos Beniko** oparia irabazi du sari gisa. Argazkian, Juanjo –erdian–, Ane alaba –ezkerrean– eta Ziklos Beniko Beni dendaria.

Zein da hau? ▶



ERANTZUTTEKO EPEA ▶

Urtarrilak 18 (asteazkena)

NORA BIDALI ▶

227 posta kutxa

ZEIN DEN ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Boxes dendako erosketa txartela

PARTE HARTZEKO BALDINTZA ▶

Uztarrrian bazkide izan behar da

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

CENTERPOINT ACADEMY

Ingelesko klaseak haur, gazte eta helduentzat
(goiz eta arratsaldean)

- Cambridge, HEO, TOEFEL
- Enpresetarako ingelesa (goisez)
- Helduentzat maila guztiak
- Eskolako ingelesa

ZATOZTE!!!

Foru ibilbidea 7-1ezk

943 81 65 03



Zaindu ▶

Entzumena

Julian
Bereziartua



Entzumenak gaixotasun asko ditu, baina gaur presbiakusia deritzanaz ariko gara; adinekoen gortasunaz, alegia.

Gaixotasun hori ez da sendatzen, horregatik oso garrantzitsua da ahal den beranduen eta pixkanaka izatea. Gortasun progresiboa eta simetrikoa da eta bi belarrietan gertatzen da; 'gortasun soziala' ere deitzen zaio.

Hala ere, inguruneke zaratek –ezteietako bazkaritan gertatzen den bezala, adibidez–, sentsazio desatsegina ematen dute eta diren baino handiagoak edo gogorragoak dirudite. Batzuetan ezohiko zaratak sortzen dira.

Aipatzen ari garen egoerak pertsona helduak bakartzera edo isolatzera bultzatzen ditu eta, ondorioz, mesfidantza sortzen da, eta batzuetan depresioa ere bai. Azken batean, bizitzaren faktura da. Horregatik, sendagileok ez dugu esaten gaixotasuna denik, gainbehera fisiologiko bat dela baizik, eta hala da, egia esateko.

Entzumenaren gutxitzea eragiten duten beste prozesu patologiko batzuk ere badaira. Komeni da adinekoek hipokusia gaitz txikitat edukitzea; hala ere, birgaitze tratamendua egitea gomentatuko nuke; hori bai, isekarik eta mespretxurik gabe, lagunei eta sendikoei nola hitz egin behar zaien adieraziz eta onartzen badu, audifono bat ezarri.

IÑAKI ALTUNA ▶

zapataria

Oinetako batzuk?

Neguan botak eta udaran sandaliak.

Taila bat?

44a, nirea.

Hanka txikia edo handia?

Handiak; ni hanka handi zalea naiz.

Zapatari izan ez bazina...

Elektrizista, zapataria izan aurretik ere horixe izan nintzen eta.

Hankak ondo tapatuta edo bistan?

Neguan ondo tapatuta eta udaran bistan.

Urtaro bat?

Udazkena.

Material bat.


Narrua.

Hanka hutsik eta zapatekin?

Hanka hutsik ibiloi zalea naiz.

Kolore bat?

Urdina.



▶ Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe

Esandakoa ▶

“Esango nuke literaturak, batez ere, ‘letxe’ txarra galdu duela, jendea haserrarazteko ahalmena”

PAKO ARISTI ▶

idazlea

“Gogor entrenatu naiz, baina esperientzia oso polita izan da Espainiako Txapelketa”

HAIZEA ETXEBERRIA ▶

gimnasta

Abizena ▶

Olano

Armarria.

Gorritz, urrezko lore bat agertzen da. Armarriaren ertz batean beste lore sorta bat ere ageri da.

Banaketa semantikoa.

▶ Ola + -no atziki txikigarria.

Esanahia.

Etxe, ola edo burdinola txiki bat da abizenaren esanahia.

Abizenaren kokapena.

▶ Zigoitia.

▶ Elosu.

▶ Legazpi.

▶ Abalzisketa.

▶ Azkoitia.

▶ Zaldibi.

▶ Bilbo.

▶ Zeanuri.

Abizenaren hedapena.

▶ Ordizia (1767 eta 1787).

▶ Irun (1660).

▶ Elduaian (1773).

▶ Berrobi (1780).

▶ Bilbo (1678, 1844 eta 1855).

▶ Azkoitia (1415, 1455 eta 1484).

▶ Legazpi (1483).

▶ Getaria (1456).

▶ Lenitz-galtzaga (1744).

Zenbat ▶

808

EHNA EGINDA.

Azpeitian 2002an hasi ziren zuten EHNA tramitatzen. Hiru urteren buruan 808 lagunek egin dute bertan.

www.uztarria.com/blogak

Gertuko pasadizoa ▶

jokatzeko LEKU BILA

'Iraurgi Saskibaloia Elkarte' liburutik hartua ▶ Argitaratzailea: Iraurgi S.B. ▶ 2002 ▶ Egilea: Jon Olaizola



bat zen, eta haiek ez zuten klub baten eraketa eta antzeko korapiloetan sartzeko gogorik. Astean lan saio bat egiten zuten partidatxoak jokatzeko hainbat biltzen zirenean: Xabier Madina, Esteban Urbieta, Iñigo Juaristi Aldagoiti, Ritxi, Federico Aranbarri, Benito, Txotxe, Fari, Jose Ignacio Zurutuza... Betharramdarretako jolas-eremu berria luxuzkoa zen gazte haietarako. Gerora Zestoako eskubaloiko taldea ere Betharramdarretara etorri zen; nahiz eta estali gabea izan, Urola bailararako puntako kirol ekipamendua zen. Futbitoan jokatzeko ere erabili zen.

KAPITULUA ▶ Saskia 3,05 zentimetrora (28. orrialdea)

Gazte haiek, saskibaloian jokatzeko irrikatzen zeuden gazte haiek, leku duin bat lortzeko zer-bait egin beharra zegoela erabaki zuten. Fari *Xamartinekoa* oraindik ezin hobeto oroitzen da Donostiara Loiolako Jesuitetara espreski joan zirela Zurutuza eta biak Hermano Rosanorengana, hau Gipuzkoako saskibaloian oso pertsonaia entzutetsua baitzen sasoi haietan, eta han nola jakin zuten saskiak lurretik hiru metro eta bost zentimetrora egon behar duela. Xamartineko mutikoa harri eta zur utzi zuten hiriko ikastetxe hartako saskien taulak beirazkoak zirela ikusteak, eta estalitako jolas-

eremuaren buelta guztia saskiz josia zegoela ikusteak; hiriburukoak beste galaxia batean zeuden.

Azpeitira itzultzean, saskien neurri zehatzekin Karrera anaiengana joan ziren *-perratzailenekoak bezala ezagutuak Azpeitian-*. Gero egin zituzten minibasketeko saskiak ere, eta lanaren zenbatekoa udaletxera eraman zuten.

Anaitasuna Illarra taldeak urtebeteko bizia izan zuen. Hala ere, lagun talde bat aurrera jarraitzeko prest zegoen, eta hurrengo urtean bertan *-1973an-*, taldea berrosatu egin zen eta Lagun Onak izena hartu zuen. Saskibaloian jokatzeko gogoia zuen lagun talde

▶ **ELKARREKIN.** Ikus daitekeenez, lehen bi taldeen izenetan Anaitasuna eta Lagun Onak agertzen dira. Sorreratik bertatik, saskibaloian azkoitiarrek eta azpeitiarrek elkarrekin talde berean jokatu izan dute. Bailaran saskibaloia ezagutzen zutenak gutxi ziren, eta, horrela, kirol honek bi herrietako seme-alabak bat egin zituen, hain ezaguna den bi herrien arteko sestra inolako arazorik gabe, naturaltasun osoz gaindituz. Saskibaloian jokatzeko gogoia ororen gainetik zegoen. Gainera, egoera ez zegoen jarrerara herriko itxiararako. ◀

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
Larrialdiak:
943 15 16 40
ALBAITARI KLINIKA

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Oramendi
Bizi Denda
Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

HORMIGONES LAZKANO
HORMIGOIAK

CONSTRUCCIONES ANTZIBAR
ERAIKUNTZAK

domusa

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbul.-larrialdiak	81 12 01
Eguneko zentroa	15 71 94
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendartea)	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	943 15 09 94

LARRIALDIAK

112

Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
ArrateIrratia (berriemaia)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

Habea	15 72 00 (138)
EA	81 00 11
PSE-EE	15 72 00
PP	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08

Uztarrria Kultur Koor.	15 03 58
Kontseilua	943 59 12 00

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Hitzeko Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79 / 943 08 06 88

Farmaziak gauz ▶ urtarrila

4-16-21-22

Jacome (Azpeitia).	943 08 02 58
--------------------	--------------

5-17

Aranburu (Azpeitia).	943 81 13 50
----------------------	--------------

6-18-30

Beristain (Azpeitia).	943 81 19 49
-----------------------	--------------

2-7-8-19-31

Alberdi (Azpeitia).	943 81 59 74
---------------------	--------------

3-20

Garcia (Azkoitia).	943 81 12 74
--------------------	--------------

11-12-13

Azpiazu (Azkoitia).	943 85 29 89
---------------------	--------------

9-10-25-26-27-31

Gisasola (Azkoitia).	943 85 12 35
----------------------	--------------



EGUNEKO ZENTRO BERRIA.

Bistaeder eguneko zentroa berri egin dute; azaroan inauguratu zuten izen berri eta guzti. Hamasei plaza izatetik 30 lagunentzako lekua izatera pasatu dira, eta horietatik hamabi aste bukaeratakoak dira, gainera. IHINTZA AGIRRETXE

Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: www.uztarria.com/azpeitia/autobusak)

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igandea eta jai egunak:	09:00-13:00
▶ Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igandea eta jaiegunak:	itxita

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Udan (abuztuan ez), Gabonetan:	09:00-13:00

ZAPO TXOKO

▶ Astearte-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

ilrikolor kopistegia



Iberotarren pl 7
20730 Azpeitia
Tel: 943 08 04 79

kimetz ileapaindegia



Julian Elorza 5
20730 Azpeitia
Tel: 943 15 01 61

ididia jantzi denda



Erdi kale 17
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 12 64

lur loradenda



Santiago kalea 11
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 63 96

martina isasti jantzi denda



Julian Elorza 5
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 26 68

motx ileapaindegia



Eliz kale 18
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 07 54

muigi kilorak



Enparan kalea 8
20730 Azpeitia
Tel: 943 15 10 04

natura belardenda



Eliz kale 5
20730 Azpeitia
Tel: 943 15 09 31

urrestilla gizon jantziak



Erdi kale 6
20730 Azpeitia
Tel: 943 81 18 69

torrealday aholkularitza



Iberotarren pl 7
20730 Azpeitia
Tel: 943 15 05 09


ando pasau sansebastianak - Azpeitiko alde zaharreko merkatarien elkartera

DIAMANTE POLIKRISTALINOZKO ERREMINTA BEREZIAK




Diamond Line

Hari bidezko elektrohiduraz
erremintak mekanizatuko makina



Automoziorako aluminiozko
osagaien mekanizatua



Abeilanketa lanak
aeronautika-osagaietarako
aluminiozko eta
karbono-zuntzezko paneletan

Berrikuntza eta moldagarritasuna

Gure bezeroekin harreman estuan eta lan-pieza oinarri hartuta, era guztietako soluzio berezien egiturazko diseinu eta analisis egiten du ZUBIOLAK; horretarako, materialaren konposizio eta ebaketa-baldintzakaztertzen ditu PCD eta PCBN mekanizatuentzako plakatxo soldatuden erremintetan.

Errendimendu handia

Polikristalinozko erreminten urradurarako erresistentzia handiak eta ebaketa-abiadura handiko mekanizazio baldintzek metal gogorreko plakarekin lortzen direnak baino 40-100 aldiz errendimendu handiagoak lortzeko aukera ematen dute, betiere lan eta material motaren arabera.

Akaberak eta zehaztasuna

Fabrikazio- eta teknologia-bitartekoek eta ZUBIOLAREN urteetako esperientziak erabat bukatutako osagaiak mekanitzea ahalbideratzen dute, bai neurri handiko tolerantzietan nahiz azaleko kalitatean.


Malgutasuna eta konpromisoa

ZUBIOLAK enpresa malguaren izaera du, bai giza baliabideei dagokienez eta bai fabrikazio-baliabideei dagokienez. Malgutasun horren helburua hitzartutako epeak betzea da, bai eskarrietan, bai konpontze-, birziklatze- eta zorrozte-zerbitzuetan.

BEROGAILUEN MUNDUAN, ENPRESA AINTZINDARIA

- Berogailu eta ur garbigen eskaintza zabala
- Europako bermea duten kalitate ziurtagiriek
- Zure etxeko segurtasun eta konfortarekin konprometuta

Errezildik mundu osora zabaldua!



IBAI-EDER

Urrestillako Nekazal Kooperatiba

Gipuzkoako baserritarren
zerbitzura egunez egun

Urrestilla biden - Tel. 943 814343 Faxa 943 814308
20738 URRESTILLA-AZPEITIA

Urbinate, 2 Tel.: 943 15 64 20



BOXES
puerikulturaren adituak

BERNARDO AIZPITARTE 'KABRA' ▶ kioskeroa

“Kioskora egunero etorri behar izaten dun”

▶ Testuak eta argazkiak: Ihintza Agirretxe



TXIKITAKO AMETSA.

Bernardo Aizpitarte ez da gogoratzen zer izan nahi zuen txikiteko ametsez. “Lehen ez zunan orain bezala. Orduan oraingo aldean aukera gutxi zagonan”. Hala ere, ondo gogoan du zer ez zuen nahi izan: “Garbi nuen futbolaria edo horrelako ezer ez nintzela izango, behintzat...”.

Bernardo Aizpitarte *Kabra* Azpeitiko plazako kioskoan egoten da egunero. Urtean hiru egun baino ez ditu izaten jai; Eguberri Eguna, Urte Berri Eguna eta Aste Santuko zapatua.

Zenbat urte daramatzak lan honetan?

Hamalau urte inguru izango ditun dagoeneko lan honetan hasi nintzela.

Nolatan hasi hintzen?

Lehenik nire andrea hasi zunan. Nik orduan kale barrenean denda bat ninenan, baina hura gaizki joan zitzaidanan eta orduan hasi nindunan hemen lanean.

Lan gogorra al da?

Gogorra baino gehiago, lotua dun. Egunero-egunero etorri behar izaten dun hona; urtean hiru egunetan bakarrik ez dun egoten egunkaririk, eta guk, kioskerook, orduan baino ez dinagu izaten jai. Orain, hala ere, goizez soilik irekitzen dinat; lehen goiz eta arratsalde, eta gogorragoa zunan.

Hemen herriko kontuez ere enteratuko haiz ba?

Bai, guk berriak eman eta jaso ere egiten ditinagu. Ez dun leku txarra herriko kontuak jakiteko, baina nik horrelako kontuetarako ez dinat batere balio.

Gehien saltzen den egunkaria zein den galdetzea ere...

Bai, dudarik gabe *El Diario Vasco* dun gehien saltzen dena. Zergatik? Eskelengatik. Astearteetan azokara etortzen den jende helduak ez din *Diario* bezala ezagutzen egunkari hori, eskelen egunkaria eskatzen diten.

Zergatik erosten da gaur egun egunkari bat edo bestea?

Baditun gauza batzuk ez ditudanak ulertzen. Adibidez, astelehenean *Gara* gehiago saltzen dun futbola dela eta, eta nik hori ezin dinat ulertu. ◀



IÑAKI SEGUROLA ▶ 'Orotariko Euskal Hiztegia'-ko lan taldekoa




Hiztegiarekin

kasualitatez

hasi nintzen lanean”

▶ Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe



2 1 urte eta gero bukatu dute *Orotariko Euskal Hiztegia*. 21 urte horietan Iñaki Segurola azpeitiar filologo, idazle eta euskaltzain urgazleak zeregin horretan jardun du. Behin lan hori bukatuta, Uztarriak Seguolarekin hitz egiteko parada izan du.

Nolatan hasi zinen *Orotariko Euskal Hiztegia*-rekin lanean?

Kasualitatez sartu nintzen. Nik 1984an bukatu nituen ikasketak eta orduan jarri zen martxan proiektu hau, Koldo Mitxelena, unibertsitateko eta Jaurlaritzako zenbait jenderen artean. Nik orduantxe ikasketak bukatuta nituen eta unibertsitatean Mitxelena eta Ibon Sarasola izan nituen irakasle. Urte hartan ikasketak bukatutako bi lagun hasi ginen lan honetan.

Nolakoa izan da lan dinamika?

Normalean ezagutzen diren hiztegiekin ez du zerikusirik hiztegi honek; hemen hitz bakoitza historian nola ibili izan den azaltzen da, testuen bidez. XVI. mendetik XIX.a arte hitz bat nola, non eta zeinek erabili izan duen azaltzen da. Hasieran testu ugari ordenagailuan sartu behar izan genituen. Orain 21 urte testuak ordenagailura eskuz sartzen ziren; ez zegoen *scanner*-ik eta dena eskuz pasatu behar izan genuen. Hasierako bi urteetan 'txinoen' lana egin behar izan genuen. Hori eginda gero, guk material horien historia genuen eta hortik hasi ginen lanean.

Lan honetan zer ikasi duzu?

Ni unibertsitatetik, beste guztiak bezala, gauza batzuk ikasita irten nintzen; eskeleto edo base bat ikasita irteten duzu. Gero horrelako proiektu batean sartzen zarenean, ohartzeko zara laurdenaren laurdenik ere ez dakizula. Orduan testu pilo bat irakurri eta ikasten hasten edo jarraitzen duzu. Guk zortea izan genuen Koldo Mitxelena-rekin jarduteko aukera izan

genuelako. Nik unibertsitatean, besteak beste, Mitxelena izan nuen irakasle. Sarasolak esan ohi du Mitxelena lan honen arkitektoa izan zela, berak aparejadore lana egin duela, eta guk hark erakutsitako bidea osatu dugula.

Mitxelena eta Sarasolaren lan metodoek aldaketarik izan al zuten?

Mitxelena lege zaharreko pertsona zen; katedratikoa, asko zekiena. Baina epeak, denbora... Hark ez zuen horrelakoetan pentsatzen. Sarasolak, berriz, injeniar mentalitatearekin egiten du lan. Mitxelenak edozein detaile txikirekin bi egun pasa zitzakeen. Niri, dudarik gabe, Mitxelena askoz gehiago gustatzen zitzaidan. Produktibismoaren eta filologi industrialetatik kanpo bizi zen hura eta hori askoz atseginagoa da, baina beti bezala diruak, epeak... agintzen dute.

Hasiera batean bost urtean zortzi liburuki egiteko asmoa zegoen. Azkenean 21 urte eta hamasei liburuki izan dira. Pentsatu baino aberatsagoa al da gure hizkuntza?

Kontua da, jendea pentsatu baino txarragoa eta eskasagoa dela aurreikuspenak egiten. Nik uste hori dela arrazoi nagusia. Lanean hasi nintzanean, Sarasolak niretzat bost urterako lana zuela esan zidan eta 21 urte pasatu ditut. Nik uste bost urtean ez dagoela ezer egiterik. Gero egiteko era ezberdinak daude, eskema modura egiten baduzu egin daiteke bost urtean, baina hitz bat hartu eta hitz horrek historian izan dituen agerraldi guztiak biltzeak lan asko du.

Hiztegiak lau milioi hitz ditu. Zein izan da hitz horiek sartze-ko arau edo legea?

Guk ez dugu aukeraketarik egin. Guk harrapatutako dena sartu dugu, ez dago inongo aukeraketarik. Inongo garrantzirik ez duen hitz bat, testu batean bakarrik eta dudakoa bada ere, igual-igual sartu dugu.

Orotariko Euskal Hiztegia-ren

hasierako helburua garai, toki eta mota guztietako euskal hitz ondarea biltzea zen. Lortu al duzue helburu hori?

Bai eta ez; kontuan izan behar da dena biltzea ezinezkoa dela. Guk historian testuen bidez –testu gehien bidez– ikusten duguna bildu dugu. Hemen *corpus* osoa ez dago; XVII. mendeko gehiena egongo da, baina XX. mendeko guztia ezin da bildu. Orduan idatziko iturrietan islatzen edo azaltzen den hizkuntza horren muina eta dezente gehiago azaltzen da. Baina hori ez da hizkuntza, hori hizkuntzaren eskeletoa-edo da. Gaur egunean, euskaraz esaten dena biltzea ezinezkoa da.

Egindako lanaren emaitzarekin gustura al zaudete?

Orokorrean gustura gaude egindako lanarekin. Lehen bost tomoak eskeleto bat dira eta gauza asko falta dira. Garai hartan menperatzen ez genituen gauza asko zeuden eta denborarekin gauzak gehiago lantzen joan gara (esapide mailak, azpiadierak...) eta gauza horiek falta zaizkie liburuxka horiei. Orain, hasierako bost liburukietan falta den informazioa biltzen ari gara lan taldearen zati bat. Paperean ez da argitaratuko, baina edizio digitalerako osatuko dugu.

1981eko jardunaldi batzuetan euskal hiztegi gintzaren plangintza orokor bat behar zela aipatu zen. Hiztegi “orokor, hiritartu eta espezializatuak” behar zirela esan zen. Hori betetzen ari al da?

Orotariko Euskal Hiztegia oinarriko azpiegitura bat izango litzateke, bai lan linguistikoetarako eta baita beste hiztegiak egiteko orduan ere. Gaur egun *Elhuyar* hiztegia da erabiliena, nahiz eta orain lehia gogorra egingo dion Ibon Sarasolak ateratako *Zehazki* hiztegiak. Horien oinarri *Orotariko Hiztegia* dago, eta beste hainbat gauza; hiztegi komertzialak egiteko balioko du. Gero Euskaltzaindiak *Hiztegi Batua*-ren presta-lan bezalako

Azkar-azkar

Hizkuntza. Ondoan umeek ikasten dutena.

Euskara. Izan nintzen umeak ikasitako hizkuntza.

Hitza. Hizkuntzaren hezur eta, askotan, gezurra.

Ibon Sarasola. Euskal Filologian injeniar mentalitatea ezarri zuena.

Koldo Mitxelena. Maisua. ‘Orotariko Euskal Hiztegia’.

Bide luze eta zail bat.

Euskaltzaindia. Akademia bat, baina ni ez naiz akademia zalea.

Hiztegiak. Jendeak derrigorrez zabaltzen dituen liburuak.



“Hitzak nola erabili izan diren zehazten du ‘Orotariko Euskal Hiztegiak’, baina ez du araurik ematen”

bat egiteko asmoa badu, euskara-euskara ateratzeko; hori Euskaltzaindiaren hiztegi ofiziala izango da. Nik uste proiektu horiek daudela, oraingo, eta orduan aipatutako helburu horiek ari dira pixkanaka lortzen.

Orotariko Euskal Hiztegia nori zuzendurik dago? Izan ere, betidanik egin izan zaion kritika da, nahiz eta euskal hiztegia izan, hitzen definizioak gaztelar eta frantsesez daudela.

Hori horrela izatearen arrazoia praktikoa da. Orain 21 urte Mitxelenak eta Sarasolak hitzen definizioak erdaraz ematea erabaki zutela da. 21 urte pasatu baditugu horrela egiten, euskaraz egitea otu bazitzaen orain 21 urte, gauzak nola zeuden kontuan hartuta, oraindik eta lan handiagoa eskatuko zuen. Eta, bestetik, Mitxele-

nak beti izaten zuen kontuan nazioarteko mundu hori, kanpoko ‘euskalari’ horiei begira ere izaten zen. Sarasolak noiz edo noiz esan izan du proiektu hau berriro planteatu beharko balitzateke, orduan baino zalantza gehiagorekin baina berriro horrela egingo lukeela. Nik ez. Gaur egunean gauzak eginago eta errazago daude, eta nik uste dut egin daitekeela euskaraz.

Askotan esan izan da oraindik menpekotasuna dugula geure hizkuntza geure baliabideen bidez ulertzeko...

Gaur egun ez, baina orain 21 urte bai. Garai hartan hiztegi mailan ere Kintanaren hiztegia bakarrik izango zen, gero *Elhuyar* izan dena orduan Kintanaren hiztegia izan zen. Nik uste zailtasun teknikoak eta Mitxelenak izan zuen kanpora begirako zera horrek markatu duela hiztegiaren ibilbidea.

Behin eta berriro aipatu duzue lan deskriptiboa dela eta ez normatiboa.

Horrek dagoena nola erabili izan den zehazten dela esan nahi du. Baina ez du araurik ematen. Dagoena agertzen du hiztegi honek.

Alde txarrak eta onak izango ditu horrelako hiztegi batek.

Ni naizen bezalako izanda, dena ona du hiztegi honek. Honek dagoena nola erabili den azaltzen du eta ez du ezer arautzen, ez du ezer ezartzen. Guk abantaila bat ere badugu: nik hamasei liburuki horiek guztiak irakurri ditut. Nik, gainera, bigarren liburukitik zuzenketak egin izan ditut, Mitxelena hil zenetik. Hau da, jendeak erredakzio lana egin du eta ondoren Sarasolak eta nik zuzendu eta gainbegiratu ditugu; beraz, hemen agertzen diren hitz guztiak senidetuta ditugu. Hortaz, niri hau komeni zait eta, gainera, badakit nola ibili behar dudana. Hiztegi hau, linguistika eta filologiaz dakitenek erabiltzeko hiztegi bat da. Hala ere, pare batek esan didate hiztegia nobela bat balitz bezala irakurtzen dutela. ◀

Euskararen gorabeherak ▶

Eskubidea ▶

“Eskubidea dugu Euskal Herrian sarbidea duen hedabide orok euskararen presentzia berma dezan”

Euskal Herrian Euskaraz ‘Bideak’ eskuliburutik hartua; Uztarrian dago edonoren eskura

Bota lasai ▶

Inpresioez

Lana dela eta, herri dezente-tan ibiltzea tokatu zait, eta fijatu eta inpresio garbi samarra dut: Azpeitian beste (ia?) herrietan baino gehiago bizi gara euskaraz (hizketan ez ezik, errotulazioetan, karteletan, barne idatzietan, propagandan, taldeetan, ikastetxeetan, udaletxean, toki ofizialetan...).

Herrian ez dugu euskararen aldeko mugimendu artikulatu osorik (euskalgintza, Udala, norbana-ko euskaltzaleak, gizarte eragileak...), baina pixkanaka aurrera goaz. Ai artikulatuko bagenu dena...

Oroz gain, oraingoz: Azpeitian (ere) ez gara euskaraz bizi. Hori ez da inpresioa, hori hala da.

▶ Enekoitz Esnaola

Gabonetako parkeaz

Uztarriako bazkide batek kexa hau helarazi digu: “Gaur umearekin Iza rraitz frontoira joan naiz, Gabonetako haur parkera. Eta parkearen arduradunak, erdaldunak; ez dakite euskaraz (orduan han zeude- nek behintzat). Ez zait ego- kia iruditzen eta esan egin diet”.

▶ Uztarriako bazkide bat



GORA. Eroski, egoki

Sanjuandegiko Eroskiren denda euskaraz jarri dituzte gabonetako iragarkiak. Besteetan behera jarri izan diogu gezia. Orain gora. Bakoitzari berea.



BEHERA. Baliogarria al da?

“Bailio balio du gidatzeko baimen baliogarria izateko identifikazio agiriren”. Horrela dio gidatzeko behin-behineko baimenak. Baina euskaldunoi balio al digu?

AUTORIZACIÓN TEMPORAL PARA CONDUCIR

AUTORIZACIÓ TEMPORAL PER CONDUIR / AUTORITZACIÓ TEMPORAL PER A CONDUIR
AUTORIZACIÓN TEMPORAL PARA CONDUCIR / ALDI BATERAKO GIDATZEKO BAIMENA

VÁLIDA PARA CONDUCIR POR ESPAÑA SI VA ACOMPAÑADA DE UN DOCUMENTO OFICIAL DE IDENTIFICACION

VÀLIDA PER CONDUIR PER ESPANYA S'ACOMPANYA D'UN DOCUMENT OFICIAL D'IDENTIFICACIÓ/
VÁLIDA PER A CONDUIR PER ESPANYA SI VA ACOMPANYADA D'UN DOCUMENT OFICIAL
D'IDENTIFICACIÓ / VÁLIDA PARA CONDUCIR POLO ESPAÑA SE VAL ACOMPANADA DO
DOCUMENTO OFICIAL DE IDENTIFICACION / BAILIO BALIO DU GIDATZEKO BAIMEN BALIOGARRIA
IZATEKO IDENTIFIKAZIO AGIRIREN

EURO 2008 (ECT/04)

Behatokia ▶ (euskararen eskubideen urraketak salatzen telefono zenbakia eta weba)

☎ 902 19 43 32

www.euskararentelefonoa.com

www.uztarria.com/euskara

Urte berrian ere
gozatu naturaz

Lasao

egurrezko altzaria

Lasao Industrialdea -- Tel. 943 151 182 -- AZPEITIA



www.lasao.com

JOYBOOK 2100

BenQ

AMILO A 7640
AMD Sempron 3100



GARAPEN P3000
PENTIUM 4 3000MH



GARAPEN A3000
AMD Sempron 3000



ORDENAGAILUAK

KAMERA DIGITALAK

MUGIKORRAK

eta gehiago

ESKANTZA INTERESGARRIAK
GALDETU DENDAN

STATUA 37/123

Samsung X640



Alcatel 556



SIEMENS SL 65



LG 2300

Morola V547



Canon

Zerbitzu tekniko informatikoa

Banatzale Ofiziala
Euskaltel



ondo pasatu sasebastianak!

